

---

Euskaltzaindiaren  
Oroitidazkia  
2000





Memoria  
2000  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Euskaltzaindia



Mémoire  
2000  
Académie de la Langue Basque  
Euskaltzaindia

---











Euskaltzaindiaren  
Oroitidazkia

**2000**

Bilbo, 2001

Testu-idazketa: Jose Luis Lizundia, Pello Telleria, Itziar Rekalde, Amaia Okariz  
Testu gainbegiratzea: Patxi Goenaga

© Euskaltzaindia  
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
E-mail: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net)  
Webgunea: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.  
Cuevas de Ekain, 3, 1º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.  
Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-3063-01

# AURKIBIDEA

---

<b>Aurkezpena</b> .....	7
<b>I. Ekitaldi eta harremanak</b> .....	9
I.1. Ekitaldi eta batzar bereziak .....	11
I.2. Erakunde harremanak .....	15
<b>II. Akademia jarduera</b> .....	19
II.1. Hiztegegintza .....	23
<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH) .....	23
Hiztegi Batua .....	27
II.2. Gramatika .....	31
II.3. Dialektologia (Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa) .....	33
II.4. Onomastika .....	37
II.5. Literatura .....	41
Herri Literatura .....	41
Literatura Ikerketa .....	43
Sariketak .....	45
II.6. Euskara Batua .....	47
II.7. Jagon saila .....	49
Corpus alorreko lanak .....	49
Sustapen alorreko lanak .....	53
<b>III. Erakunde zerbitzuak</b> .....	55
III.1. Zerbitzu orokorrak: egoitza eta ordezkariak .....	57
III.2. Azkue Biblioteka .....	61
III.3. Argitalpenak .....	67
<b>IV. Aurrekontuak</b> .....	73
IV.1. Balantzea .....	75
<b>V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak</b> .....	77
V.1. EAEko eta Nafarroako Herri Aginteak .....	79
V.2. Estatu Administrazioa .....	81
V.3. Pirinio Atlantikoetako Departamendua .....	83

V.4. Udalak .....	85
V.5. Euskal Herriko Unibertsitatea .....	87
<b>VI. Euskaltzaindiaren organigrama .....</b>	<b>269</b>
VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak .....	271
VI.2. Batzordeen zerrenda .....	273
VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama .....	277
VI.4. Helbideak .....	281



## Aurkezpena

Sortzetik beretik Euskaltzaindiak bi arlotan ditu banatuak bere egitekoak: Iker saila da bata, Jagon saila bestea. Euskararen gramatika arauak ikertzea, hiztegia lantzea eta literatur hizkuntza batu bat eraikitzea dira Iker sailari egozten zaizkion eginkizun nagusiak. Jagon saila, berriz, hizkuntzaren erabilera zuzena eta kalitatezkoa bultzatzeaz eta euskaldunon hizkuntza eskubideak zaintzeaz arduratzen da. Eginkizun horiei ezin die uko egin Euskaltzaindiak eta, bere inguruan ibil daitezkeen bestelako zenbait erakunde betebeharrak horietan partaide izan badaitezke ere, gizarteak egotzi dion eta aitortzen dion erantzunkizunari aurre egin behar dio Euskaltzaindiak. Hala ulertu ditu gauzak betidanik Akademiak. Eta, hain zuzen, urtero bezala, betebeharrak ezarri dizkion gizarte horri kontuak emateko ordua iritsi da. Hori da, hein batean, Euskaltzaindiaren 2000. urteko Oroitidazkia. Lan hau plazaratzeak bidean geldialdi bat egin eta atzera begira jartzeko parada eskaintzen digu. Biziak aurrera egiten du eta, ohituraren poderioz, inertziatz, edo nahi denaz, arriskua izan dezakegu, behar bada, gauzak bere horretan uzteko, bere kasa ibil daitezzen, ohartu gabe zein bide daramagun. Tentazio horri aurre egiteko aukera ematen digu Oroitidazkiak, daramagun norabideaz gogoeta egiteko parada: urtean zehar egin direnek nahiz egiteke edo egin ezinik utzi direnek hurrengo urratsak nondik bideratu behar genituzkeen erakuts diezagukete.

Horrezaz gainera, urteko lanen laburpen bat izan nahi dute orrialde hauek, euskarria eta laguntza ematen digun gizarteari kontuemate bat izan nahi dute. Kontuemate honetan luze-zabalera handiena batzordeen akademia lanari eskaini nahi izan diogu, lan hau baita Euskaltzaindiaren izaeraren arrazoia. Gertakari nagusi bezala, lehenbizi, Hiztegi Batuaren argitaratzea aipatu nahi nuke. Izan ere, lan honek biltzen du aurreko urteetako jardunaren emaitza. Hiztegi Batuko lantaldea, Euskara Batuko batzordea eta, bere oharrak eginez eta hileroko batzarretan parte hartuz, egitasmo garrantzitsu hau gorpuzten lagundu duten euskaltzain guztiak daude Hiztegi honen atzean. Lan luzea eskatu du, arinkeriari uko egin behar zitzaion, gauzak ongi pisatu... Azkenean, martxoko bilkuran euskaltzainek beren sinadura ezarri zuten Hiztegi Batuaren atariko orrialdean. Bere xumean, forma hutsak finkatu besterik ez baita egiten, definizioetan eta sartu gabe, urrats handi bat izan da euskararen batasun bidean.

Gainerako batzordeek ere, atsedean handirik gabe, ezarritako xedeei jarraitu diete. Liburuki honetan ematen da joan den urtean egin duten lanaren berri. Hiztegiari, Onomastikari nahiz Gramatikari dagozkion arauak kaleratu ditu Euskaltzaindiak 2000. urtean. Hori agerian ikus daitekeen zerbait da. Baina bada beste zerbait, beti ikusten ez dena, aldizka baizik. Hots: araugintzaz aparte, batzorde horiek beren ikerketarekin segitzen dute. Ikerketa horren uzta bere sasoian bilduko da. Gauza bera esan behar da gainerako batzordeei buruz ere, dela Dialektologia batzordeaz -laster kaleratuko baita Atlasaren lehenbiziko liburukia- dela Literatura batzordeaz eta beste batzordeez.

Jagon saileko bi azpibatzerdeek ere (corpus alorrean diharduenak, eta sustapenaz arduratzen denak) eskuak bete lan izan dute 2000. urtean. Batetik Jagonet hizkuntza kontsulta zerbitzuari azken bultzada eman zaio. Honek ahalegin berezia eskatuko dio Euskaltzaindiari, baina ez da dudarik euskararen zabalkunderako eta hizkuntzaren kalitatetarako tresna ederra izango dela. Hizkuntzaren sustapenari dagokionez ere zenbait ekitaldi eta partehartze izan dira.

Liburuki honetan, ohi denez, beste hainbat xehetasun ere jasotzen da: eskaintzen diren bestelako zerbitzuak (biblioteka, argitalpenak, jendaurreko leihatilak, informatika, etab.), diru kontuak, Euskaltzaindiaren organigrama eta kanpoko erakundeekin dituen harremanen berri, esaterako.

Eta zerbitzu hauen guztien azpian beti pertsonak egon ohi dira. Alde honetatik, ezin utzi aipatu gabe gertakizun garrantzizko bat: Andres Iñigo euskaltzain berriaren sarrera ekitaldia. Herri giroan ospatu zen ekitaldi hau Iturengo herrian. Eta pertsonen dagokien beste kontu baten berri ere ematen da Oroitidazki honetan. Izan ere, urte amaiera baino lehen egin baitzen Zuzendaritza berriaren hautaketa. Araudi berriaren aginduz, hemendik aurrera zuzendaritzakideak lau urterako hautatuko dira. Bestalde, **Jagon** sailburua eta **Iker** sailburua ere Zuzendaritza taldeko dira.

Azkenik, aipagarria da Herri Aginteen Euskaltzaindiari ematen dioten babesak dela eta, aurten Frantziako Estatuak ere aintzat hartu duela lehenbizikoz gure Akademia eta sinatu den hitzarmenari esker hemendik aurrera Euskaltzaindiak Iparraldean hobeki eta erosoago lan egin ahal izango duela. Eskerrak ematea dagokigu. Eskerrak ematen dizkiegun bezala Euskaltzaindiak dituen gainerako babesle eta laguntzaileei: Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioei, Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioari. Orobat, euskararen aldeko gure lana egin ahal izateko laguntza ematen diguten udalei.

Patxi Goenaga,  
idazkaria

# **I. Ekitaldi eta harremanak**



## I. EKITALDI ETA HARREMANAK

### I.1. EKITALDI ETA BATZAR BEREZIAK

#### **Andres Iñigo euskaltzainaren sarrera ekitaldia**

Iturengo udaletxean, maiatzaren 27an, egin da sarrera-ekitaldia.

Euskaltzain oso eta hainbat urgazlez gainera ekitaldian parte hartu dute J. M. Gorosterrazu, Iturengo alkateak, J. R. Elorz, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, M. A. Petrirena, Malerrekako Mankomunitatearen lehendakariordeak, B. Bilbao, Eusko



*Doneztebeko Udaletxean, 2000-V-27an, Andres Iñigoren sarrera-hitzaldian; ezkerretik eskuinera: Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jean Haritschelhar eta Jose Mari Gorosterrazu.*

Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzako ordezkariak, G. Lobera Bizkaiko Diputazioako Euskara zuzendariak eta eskualdeko alkate eta zinegotzi andana batek, foru parlamentari eta kultur elkarteetako kide zenbaitek eta herritar ugari.

Herriko alkatearen agur hitzen ondoren, Andres Iñigo euskaltzain berriak bere sarrera hitzaldia irakurri du: *Onomastika euskararen normalizazioan*. Honi Andres Urrutia jaunak erantzun dio *Mendebaldetik Ekialdera erromes baten oharrak* izeneko hitzaldiarekin.

Hitzaldi hauen ondoren, euskaltzainburuak hitz labur batzuk eskaini ditu. Gero, ohiturari jarraituz, euskaltzain berriari diploma, domina eta ezautailua eman dizkio.

Ondoren, herriko plazan *Iturengo mutil-dantza* dantzatu diote euskaltzain berriari.

### **Gratien Albert Goienetxeren mendeurrena**

Donibane Lohizunen, Maurice Ravel auditoriumean, uztailaren 21ean egin da ekitaldi hau.



*Donibane Lohizuneko Maurice Ravel Auditoriumean, 2000-VII-21ean, Euskaltzaindiaren osoko bilkura; ezkerretik eskuinera: Patxi Goenaga, Jean-Louis Davant, Txomin Peillen, Xabier Kintana, Juan San Martin, Jean Haritschelhar, Miren Azkarate, Xabier Diharce "Iratzeder", Beñat Oihartzabal, Jose Mari Satrustegi, Jose Antonio Arana Martija, Juan Mari Lekuona eta Piarres Charritton.*

Euskaltzainburuak ohiko agurra egin ondoren, "Zuri-gorriak Lapurdin eta, bereziki, Donibane Lohizunen, orduko euskaltzaleen artean" izeneko txostena irakurri du Manex Goienetxe historialariak. Gatazka horrek euskal produkzioaren gehitze handia ekarri zuen, hizlariaren aburuz, norgehiagoka aritzen baitziren maiz.

Bigarren hizlaria, Mikel Zalbide euskaltzain urgazlea izan da: "Albert Goienetxe, XIX. mendeko euskalgintzaren eredu" gaiaz. Txostengilearen ustez, Goienetxez hitz egitea Euskal Herriaren eta euskal kulturaren alde ilunez hitz egitea da. Omenduaren belaunaldia aztertu du eta gainerakoekin alderatu.

### **Jardunaldiak Ternuan**

Uztailaren 23tik 25era, Ternuako *Northern Peninsula Heritage Society* delakoak gonbidaturik eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak emandako dirulaguntzari esker, Ternuan historiaz urtero antolatzen den biltzarrean izan da Henrike Knörr euskaltzainburordea. Ondoren, Quebec-en izan da, bertako *Commission de Toponymie* izeneko batzordeko zuzendaritzakoekin bilduz. Henrike Knörrek Euskaltzaindia ordezkatzeko du Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzan.

## Ohorezko euskaltzain berriak

Urriaren 27ko osoko bilkuran, honako pertsona hauek proposatu dira ohorezko euskaltzain izateko, "Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako lagunak" direlako:



*Euskaltzaindiaren egoitzan, 2000-XII-22an, ohorezko euskaltzain izendatu berriak diplomak jasotzen; ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Pierre Andiazabal, Jose Antonio Retolaza eta Jean Haritschelhar.*

- Pierre Andiazabal, Urruñakoa.
- Mariano Izeta Elizalde, Elizondokoa.
- Bitoriano Gandiaga, Mendatakoa.
- Jan Braun, Lodz-ekoa (Polonia).
- Suzuko Tamura, Tokiokoa.
- Jose Antonio Retolaza, Bilbokoa.
- Junes Casenave-Harigile, Santa Grazikoa.

Abenduan egin da diplomen banaketa.

## Sinposioa Deustuko Unibertsitatean

Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak antolaturik, azaroaren 14 eta 15ean "Eleaniztasunari eta teknika legegileari buruzko sinposioa" egin da. Jardunaldi hauetan Andres Urrutia, Koldo Biguri, Jose Luis Lizundia, Gotzon Lobera eta Rosa Miren Pagola izan dira partaide eta, amaiera ekitaldian, Jean Haritschelhar euskaltzainburua ere mahai-buru izan da.

## Hilberri-txostenak

– Otsaileko batzarrean, B. Oihartzabalek André Martinet (1908-1999) ohorezko euskaltzainari buruz prestatu duen txostena irakurri du. Egileak, frantziar hizkuntzalaritariaren lana eta bizitza aztertu ditu eta euskal hitzkuntzalaritzarekin izandako loturak.

Egun berean, J. M. Lekuonak, Iñaki Eizmendi "Basarri" (1913-1999) ohorezko euskaltzainaz egin duen txostena irakurri du. Bertsolaritzaren historian "Basarrik" izan duen lekua eta garrantzia azpimarratu ditu.

- Azaroaren 24an, honako hilberri-txosten hauek irakurri dira:



Gipuzkoako Diputazioan, 2000-XI-24an, Peter Etxeberriaren hilberri-txostena irakurtzerakoan; ezkeretik eskuinera: Jose Antonio Arana Martija, Henrike Knörr, Jean Haritschelhar eta Patxi Goenaga.

Terence Harrison Wilbur (1924-2000) irakasle eta euskaltzain ohorezkoarena aurkeztu du Andolin Eguzkitzak. Txostengileak Wilbur hil berriaren lanak aipatu ditu: Schuchardt-iburuzkoak eta euskal gramatikazkoak (*Prolegomena to a Grammar of Basque*), bereziki, haren arloa germanistika bazen ere.

Peter Etxebarria (1918-2000) euskaltzain urgazle, euskaldun sutsu eta legegizon ospetsu zenaz William Douglass euskaltzain ohorezkoak igorritako hilberri-txostena irakurri da.

J. Allières (1929-2000) euskaltzain ohorezko zenaren omenez Jean Haritschelhar euskaltzainburuak egin du hilberri-txostena. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren beharra aspaldi ikusi zuenak eta euskal aditzaren aztertzailea izan zenak, gaskoinaren eta euskararen arteko kidetaskunak ere aztertu zituen.

## Zuzendaritza berrizatzea

Abenduaren 22an, bilkura berezia egin dute euskaltzain osoek Zuzendaritza berrizatzeko. Hau dela eta, bi aldaketa eginak zituen Euskaltzaindiak bere erregeletan: aurrerantzean bi urtetik lau urtera luzatzen da agintealdia, eta lau kidek osatetik seik osatzera pasatzen da, lehengoz gain, **Iker** eta **Jagon** sailburuak ere zuzendaritzakide bilakatu baitira. Hona hautatuak:

Euskaltzainburua: Jean Haritschelhar Duhalde

Euskaltzainburuordea: Henrike Knörr Borràs

Idazkaria: Patxi Goenaga Mendizabal

Diruzaina: Jose Antonio Arana Martija

**Iker** sailburua: Beñat Oihartzabal Bidegorri

**Jagon** sailburua: Andres Urrutia Badiola



## I.2. ERAKUNDE HARREMANAK

### Harreman eta ordezkapenak

Euskaltzaindia, egin zaizkion eskariei erantzunez, hiri desberdinetako hainbat aurkezpen eta ekitalditan izan da urtean zehar: Euskaltzainburua edo beste zuzendaritzakide bat edo dagokion lurralde-ordezkarria.

Laburbilduz, eta garrantzitsuenak adierazteko, besteak beste, erakunde eta elkarte hauek gonbidatu dute Euskaltzaindia: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Arabako Ahaldu Nagusiak, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak, Eibar, Elgeta, Bilbo eta Elizondoko alkateak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta UNEDek, Institut d'Estudis Catalans-ek, Lodosa-Sartagudako, Tuterako, Zizur Txikiko eta Laudioko ikastolek, Durangoko Gerediaga Elkartek, Academia Europea de las Ciencias y de las Artes-ek, Londreseko Euskal Etxeak, Elhuyarrek, Sabino Arana Fundazioak, Euskal Idazleen Elkartek eta Iparragirre Editorialak.

Lurraldeetako ordezkariari dagokie erakunde arteko ekintzetan Euskaltzaindiaren partaidetza eramatea:

- **Gipuzkoan:** *Euskaldunon Egunkariaren* 10. urtemuga, Euskal Eskola Publikoaren festa; Ikerkuntzako V. Euskadi Saria, Donostian; Kilometroak 2000, Azpeitian eta Antonio Zavala seme kutuna izendatzea, Tolosan.
- **Iparraldean:** "Bai euskarari" kanpainaren aurkezpenean, Miarritzen; Idazleen Biltzarrean, Saran; Liburu Azokan, Donibane Lohizunen.
- **Araban:** Laudion, Merkatarien Elkartek antolatutako mahai-inguru eta prentsurrekoan, hiriko errotulazio elebidunaren kanpainaren barruan; *Araba euskaraz* jaialdian.
- **Nafarroan:** Iruñean, Udako Euskal Unibertsitatean; Lodosan, Muskaria Ikastola eraikitze ekitaldian; Elizondon, Mariano Izeta euskaltzain ohorezkoari egindako omenaldian; Zizur Txikian, Nafarroa Oinez-en; Fontellasen, Tuterako Argia Ikastolaren berritze inaugurazioan.

### Radiotelevisión Española

Bilboko *Rtve*-ko (Radiotelevisión Española-ko) zuzendariaren eskariari erantzunez, Euskaltzaindiak bi ordezkari hauek izendatu ditu enpresa horretan –euskarazko lanpostu bat betetzeko– sortu den epaimahaiaren parte har dezaten: Xabier Kintana euskaltzaina eta Antton Aranburu euskaltzain urgazlea.

### Euskal Herritar Unibertsala izendatzeko proposamena

Otsaileko osokoen bilkuran, urtero Eusko Jaurlaritzak egiten duen deiari erantzunez, Zuzendaritzak Baionako seme eta oraintsu arte Nazioarteko Moneta Funtzaren zuzendari izan den Camdessus jaunaren izena aurkezteko proposamena egin du.

## **Donostiako gotzainari bisita**

Martxoaren 17an, Gotzaindegian, Donostiako gotzain izendatu berriarekin –Juan Mari Uriarterekin– bildu dira Zuzendaritzakoak, Juan Mari Lekuona Gipuzkoako ordezkariak eta Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak lagundurik. Euskaltzainburuak Akademiak egiten dituen lanen berri eman dio.

## **Euskaltzaindiaren Alde Fundazioaren aurkezpenak**

*Euskaltzaindiaren Alde Fundazioaren egitasmoa alderdi politikoen ordezkarietara aurkeztu die Akademiak:*

- Ekainaren 15ean Zuzendaritzak Sabin-Etxera bisita egin du, EAJ-ko Euskadi Buru Batzarreko burukideek gonbidaturik. Aukera honetaz baliatu zen Euskaltzaindia Fundazioa aurkezteko.
- Uztailaren 6an Partido Popularrari aurkeztu zaio, hots, Bizkaiko presidente eta Eusko Legebiltzarreko bozeramaile den Leopoldo Barredari. Egun berean, Ezker Batuaren ordezkarietara Javier Madrazo eta Oskar Matute jaunei.
- Uztailaren 12an, Euskal Herritarrok-eko Mahai Nazionaleko kide diren Angel Mari Elkano eta Rufi Etxeberriari egin zaie egitasmoaren aurkezpena.
- Abuztuaren 1ean, Eusko Alkartasuneko lehendakariari, Begoña Erraztiri eta Gorka Knörr idazkari nagusiarik egin zaie aurkezpena.

## **Aimara hizkuntzaren ordezkariak Euskaltzaindian**

Uztailaren 3an Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eskariz, Argentina eta Txileko Viviana Elsa Figueroa eta Ximena Vázquez Mazuelos andreak hartu dituzte Euskaltzaindiak.

Gutxiengoaren hizkuntzen jardunaldietara etorri dira Euskal Herrira. Euskaltzaindia eza-gutzeaz batera, Txilen, Bolivian, Perun eta Argentinan aimara hizkuntzak duen egoera azaldu dute.

## **Real Academia Española**

Ekainaren 29an, Plaza Barriko egoitza bisitatu du Victor García de la Concha Real Academia Española-ko zuzendari jaunak. Egoitzan Zuzendaritzak errezibitu du De la Concha jauna, eta honek Euskaltzaindiaren ohorezko liburuan sinatu ondoren, biblioteka, batzar gela eta gainerako bulegoak ikusi ditu eta Euskaltzaindiari Real Academia Española-ren egoitza bisitatzeko gonbidapena luzatu dio.

## **San Fermin Ikastolaren 30 urteak**

San Fermin ikastolaren 30. urtemuga ospatzeko ekitaldian Euskaltzaindiak ere parte hartu du. Irailaren 29an, ikastolako areto nagusian, Zizur Txikian ospatu da ekitaldia. Izaskun Arratibel ikastolako presidentearen ongi etorri agurraren ondoren, honako hizlari hauek hartu dute parte:

Patxi Salaberri euskaltzain urgazleak "Iruñerriko euskararen ezaugarriak" izenburupeko txostena irakurri du, diapositiben bitartez zenbait puntu argituz.

Ondoren, Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak "Alfabetatze-euskalduntzea eta udako ikastaroak" izenburuko lana eskaini du. Garai hartan "Colegio del Verbo Divino" izena zuen ikastola honen historia labur baina interesgarria eskaini du.

Pakita Zabaleta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak "Euskararen berreskuratzea Iruñerrian / Recuperación del euskara en Pamplona y su Cuenca" hartu du gaitzat. Lan honek Nafarroako eremu mixtoko egoera soziolinguistikoari eta hizkuntzaren berreskuratzeari buruzko xehetasun ugari ematen ditu.



Zizur Txikian, San Fermin Ikastolan, 2000-IX-29an; ezkerretik eskuinera, makurtuta: Patxi Goenaga, Juan San Martin, Patxi Zabaleta, Jean-Louis Davant, Andres Iñigo eta Jose Luis Lizundia; ezkerretik eskuinera, zutik: Juan Jose Zerreta, Patxi Ondarra, Jose Mari Satrustegi, Andres Urrutia, Henrike Knörr, Piarres Charriton, Mertxe Berasategi, Txomin Peillen, Jean Haritschelhar, Jose Antonio Arana Martija, Miren Azkarate, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Emile Larre eta Juan Mari Lekuona.

Mertxe Berasategi ikastolako zuzendariak "San Fermin Ikastola: hiru hamarkadako historia" izenburuko txostena azaldu du, eskuartean dituzten erronka berriak zehaztuz.

Euskaltzainburuak San Fermin Ikastolari Akademiaren brontzezko domina emanaz amaitu du ekitaldia.

### **Iparraldeko harremanak**

Iparraldeko zenbait erakunderekiko harremanak ere Baionako ordezkarietatik gidatu dira: Euskal Kultur Erakundearekin, Ikas-ekin, Eusko Ikaskuntzarekin eta Kontseilu Orokorreko Hizkuntza ordezkari Battitu Coyos irakaslearekin. Gizabanako anitz ere hurbildu da ordezkariatzara kontsultak egitera.



## **II. Akademia jarduera**



## II. AKADEMIA JARDUERA

### BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Horrez gain, bestalde, arau maila emateko eta gai nagusiak erabakitzeko hileroko osoko bilkurak ezinbestekoak dira.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: *Iker saila* eta *Jagon saila*. Bi urterik behin berrizatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzainak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetao irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak... Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

### Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindiak 2000an egindako bileren berri:

Bilerak	Zenbat
Euskaltzaindiaren hilerokoak	11
Ageriko batzarrak	6
Zuzendaritza	23
Hiztegi Batuko lantaldea	22
Gramatika batzordea	10
Dialektologia-Atlasa batzordea	10
Onomastika batzordea	22
Herri Literatura azpibatzaordea	10
Literatura Ikerketa azpibatzaordea	12
Euskara Batuko batzordea	25
Jagoneko Corpus batzordea	7
Jagoneko Sustapen batzordea	5
Argitalpen batzordea	3
Azkue Biblioteka batzordea	6
Lege-Ekonomia batzordea	8
XV. Biltzarreko bi batzordeak	5
<b>GUZTIRA:</b>	<b>185</b>





## II.1. HIZTEGIGINTZA

Akademia batendako hiztezigintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Une honetan Euskaltzaindiak bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

### II.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

*Orotariko Euskal Hiztegiaren* xedea, hiztegi historikoa eta deskriptiboa den aldetik, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. Menderik mende eta euskalkietan zehar euskaldunak nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua du hiztegi honek. Egitasmo hau aurrera eramateko, hitzarmena 1984an sinatu zen. Lehen liburukiak 1987an ikusi zuen argia eta guztira 16 liburuki izatea espero da.

## XIII. liburukia

### Idazketa

XIII. liburukiaren *Oz – Peb* letren arteko sarrerek egin dira.

### Zuzenketak

*Oam -Pa* zerrendaren testua zuzendu da.

Zuzenketa-lanok epeka egin dira (ikus eranskina):

- a) Adibideen zuzenketa (hiztegiaren corpus nagusia osatzen duten testu eta adibideak).
- b) Sarrera-buruak (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.).
- c) Koordinazio eta zuzenketa: *Mak - Oal* zatia landu da.
- d) Zuzenketa filologikoa eta lexikografikoa.

## XIV. liburukia

### Idazketa

Martxotik abendura bitartean, *Ped – Se* arteko hitz zerrendari dagokion testua idatzi da, ondoko eranskinean ikus daitekeenez.

1. ERANSKINA  
**2000ko ERREDAKZIO-LANAK**

<b>Urtarrila</b>	<b>Otsaila</b>	<b>Martxoa</b>	<b>Apirila</b>	<b>Maiatza</b>	<b>Ekaina</b>	<b>Uztaila</b>	<b>Abuztua</b>	<b>Iraila</b>	<b>Urria</b>	<b>Azaroa</b>	<b>Abendua</b>
ot-/oz- pa-	pa-	pa-	pa-	pa-	pri-/puz-	pri-/puz-	pri-/puz-	pri-/puz- sar-/saz-	sar-/saz-	sar-/saz-	sar-/saz- se-
ord-	ord-	ord-	pe-	pe-	pe-	pe-	pe-	pe- sal-/sap-	sal-/sap-	sal-/sap-	sal-/sap-
—	—	—	pl-/pr-	pl-/pr-	pl-/pr-	pl-/pr-	pl-/pr-	pl-/pr-	pl-/pr-	pl-/pr-	pl-/pr-
ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-	q/r s-/sak-	q/r s-/sak-	q/r s-/sak-	q/r s-/sak-
oin-	oin-	oin- pi-	pi-	pi-	pi-	pi-	pi-	pi-	pi-	pi-	pi-

## 2. ERANSKINA

## 2000ko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazioa eta zuzenketa	Testu zuzenketa	Sarrera buruen zuzenketa	Zuzenketa Fil. eta lexik.makinaratzea
Urtarrila	oam-/og-	—	—	—
Otsaila	ok-/om- oi-/oil-	oam-/og-	oam-/og-	oam-/og-
Martxoa	oi-/oil-	oam-/og- oi-/oil-	oam-/og- oi-/oil-	ok-/om-
Apirila	oin-/oju-	oi-/oil-	oim-/oiz-	
Maiatza	on-	ok-/om-	oim-/oiz- ok-/om-	oi-/oju-
Ekaina	on-	ok-/om- on	on-	
Uztaila	oo-      oam-	on-/ond-	on-/op-	on-
Abuztua	ond-	on-/ond- ond-/ont-	on-/op-	
Iraila	ord-	ond-/ont-	on-/op- or-	oo-/ord-
Urria	ore-/oz-	ond-/ont-	or-/oto- ots-/oz-	
Azaroa	ore-/oz-    oo-	onts-/ord-	ots-/oz- pa-	ord-/oz-
Abendua	pa-      pa-	onts-/ord- ord-/horr-	pa-	pa-



## II.1.2. HIZTEGI BATUA

*Orotariko Euskal Hiztegia* deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Euskaltzaindiak arlokako eta zatikako zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatal Izendegia*, etab. Hiztegi hauez gainera, Akademiak nahitaezkoztat jo zuen euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatzea da xedea, beti ere hizkuntzaren batasunari begira.

*Hiztegi Batuaren* lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuenak jaso dira. Bigarren batean erabilera urriagokoak jasoko dira. Lehenengo itzulian 20.000 hitz inguru landu eta onartu dira. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma izango ditu aztergai. Batzordeak 1997an ekin zion bigarren itzuli honi. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitz inguru izan ditzake *Hiztegi Batuak*. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-zerrendak osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman ditu argitarara, atalez atal. Urte honetan, liburu bakarrean, *Euskera* agerkariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu dira lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

### Hitzen azterketa

2000an zehar Hiztegi Batuko lantaldeak 6.200 forma aztertu ditu: *ia - malin* artekoak. Hitz horiek ikusi nahiz berrikusi egin dira batzordean, kasuan kasuko proposamenera iritsiz.

Forma horiek aztertzeko eta horiei buruzko proposamenak egin ahal izateko, erabilera idatziaren eta bestelako informazioen lekuko diren 1.067 txosten izan ditu esku artean lantaldeak, UZEIko prestalaneko taldeak eginak; iturri nagusitzat *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* eta *Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS)* corpusak izan dituzte txosten horiek.

### Irizpideen txostena eguneratu

Laneko irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz doa. Horrela, auzigai berriak agertu ahala, dagokien konponbidea ere zehaztu ahal izango du lantaldeak.

Irizpide horien eta kasuan kasuko informazioaren argitan aztertu dira forma edo hitzak eta hauetako bakoitzaz bere iritzia eskaini du lantaldeak, batzuetan zabalago, soilago besteetan, onartzeko forma den esanaz, edo bigarren mailan onartzekoa den, edo okerra den, zein erabil-eremu duen, nola ageri den sintaxian, zein den duen adiera, etab.

### Iritzi-emaileak

Euskaltzainez gain, jakintza-gai eta lanbide batzuetako adituek osatzen dute iritzi-emaileen multzoa. Hauei guztiei bidali zaie bigarren itzuliko lehen atala (*a - amuzki* hitzen arteko hitz-zerrenda), sarrera eta azpisarreraren artean 2.000 bat forma berri jasotzen dituen.

## Arauk

Euskaltzaindiak urtean zehar egin dituen osoko bilkuretan honako hitz-zerrenda hauek onartu ditu:



Euskaltzaindiaren egoitzan, 2000-III-31n, Hiztegi Batuko 1. itzuliko A-Z hitz-zerrenda berrikusi zeneko osoko bilkura.

- a) *zabal* – *zuzter* hitz-zerrenda
- b) *udal* eta *barruti* hitzak
- c) *Ipar.* eta *Naf.* markak jarri beharreko hitzak
- d) A – Z hitz-zerrenda berrikustea
- e) Nazioarteko hitzak txertatzea
- f) *Harri* eta *ontzi* hitzez osatutakoak
- g) Bigarren itzuliko *a* – *aberats* hitz-zerrenda onartzea.

## Jardunaldiak eta lantaldeak

Ekainean egin den Hiztegegintza Jardunaldiaren ondorioz, Euskaltzaindiak, irailaren 29ko osoko bilkuran lantalde zenbait sortzea erabaki du, *Hiztegi Batuaren* bigarren itzuliarri ekingo zaion une honetan. Erabakiak hartu baino lehen, hizkuntzak arlo desberdinetan dituen beharrak jaso nahi dira eta adituek egindako proposamenak aztertu. Hauek dira lantalde horiek:



Egoitzan, 2000-VI-22an, Hiztegegintza Jardunaldian; ezkerretik eskuinera: Antton Gurrutxaga, Jose Antonio Arana Martija, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar eta Miren Azkarate.

*Administrazio-zuzenbidea:* Andres Urrutia arduradun dela.  
*Komunikabideak:* arduraduna, Miren Azkarate.  
*Hezkuntza:* arduraduna, Xabier Kintana.  
*Eguneroko hitzak:* arduraduna, Miren Azkarate.  
*Ahozko euskaratiko hitzak jasotzeko:* Jose Mari Satrustegi.

### **Euskaltzaindiak eta UZEI-k hitzarmena sinatu**

Urtarrilaren 21ean, Donostiako ordezkartzan, sinatu dute lankidetzahitzarmena Jean Haritschelhar euskaltzainburuak eta Javier Saizar UZEIko presidentek bi erakundeen izenean. Hitzarmen honen xedea, hiztegigintza alorreko lanetan Euskaltzaindiaren eta UZEIren arteko lankidetzari oinarriak jartzea da. Hitzarmen hau hiru urterako da.



*Egoitzan, 2000-X-27an, UZEI eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren Jarraipen batzordearen bilera; ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Miriam Urkia, Miren Azkarate eta Alberto Agirreazaldegia.*

Hitzarmen orokor horri lotua dagoen *2000. urterako protokoloa* ere sinatu da. Hemen UZEIren Euskaltzaindiarendako lana zein izango den zehazten da:

- Hiztegi Batuari dagokionez, *J*, *K*, *K* eta *M* letrez hasitako hitzen zerrendak eta horien txostenak prestatu eta iritzi-emaielen oharrak jaso eta sistematizatu.
- Egungo Euskararen Biketa-lan Sistematiakoari dagokionez (EEBS), 1987 eta 1988. urteen inbentario sailkatua egin, lagin estatistikoa aukeratu, SGML formatuan zuzendu eta kodetu eta automatikoki lematizatu; eta, 1900-1990 bitarteko corpusa SGMLra pasatzen jarraitu.





## II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 1999ra bitartean zortzi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) lehenbizikoa darama oraingoz eskuartean.

### **Menderakuntzari buruzko gaiak**

Azken urteetan bezala, 2000.ean ere menderakuntzari buruzko gaiak lantzea izan du eginkizun nagusia batzordeak. 1999. urtean *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko Perpausak-1)* liburukia argitaratu ondoren, 2000.ean batzordea gramatiken saileko hurrengo liburukia prestatzen hasi da, *EGLU VI* izango dena. *EGLU V*-ean aditz jokatudun zenbait perpaus mendeko aztertu ziren: erlatiboak, osagarriak, konparaziozkoak eta ondoriozkoak. Aurten batzordeak ekin dion liburukian gainontzeko perpaus mendekoak aztertuko ditu (aditz jokatudunak beti ere): kausazkoak, moduzkoak, denborazkoak, baldintzazkoak, kontzesiozkoak eta helburuzkoak.

Batzordeak eztabaidagai izan dituen txostenak menderakuntzazko bigarren liburukian *-EGLU VI-an-* jasoko direnak izan dira:

- Denborazko perpausak
- *-eta* enklitikodun perpausak
- Kontzesio perpausak
- Moduzko perpausak
- Kausazko perpausak.

### **Arau prestaketa**

Euskara batuko araugai batzuen proposamen-txosten hauek ere prestatu ditu Gramatika batzordeak:

- "Komunztadura aposizioetan".
- "Mugatu singularra noiz erabili iraupena eta maiztasuna adierazten duten zenbatzailledun izen sintagmetan".
- "Izen sintagmen arteko juntadura dela eta".
- "Aditz modalak: *behar izan* eta *nahi/gura izan* aditzen jokamoldea aditz iragangaitzekin".
- "Zehargaldera orokorretako aditz-atzizki indargarria: *Jakin nahi nuke hori horrela denz, denentz, denez ala denetz?*".
- "Perpaus osagarri izenlagunen atzizkiak: *-eN/ -eLAKO*".

Hauetatik, 2000. urtean, Euskaltzaindiaren osoko batzarretan hiru lehenbizikoak bilakatu dira gramatika-arau.

### **Hizkuntza kontsultak**

Tarteka, batzordera iritsi diren kontsultei zegokien erantzuna eman zaie. Kontsulta partikularrez gain, honako erakunde eta elkarteek egin dituzte: Gasteizko Udala, Zaraitzu-Erronkarietako Mankomunitateak, Urtats Euskaltegiak, Maizpide eta Zornotzako barnetegiek eta gizabanako askok.

Gaiak era honetakoak izan dira gehienbat: iragarki-karteletako testua, leku-izenak juntatzen direneko hondarkia, zenbait atzizkiren erabilera, perpaus batzuen gramatikaltasuna, adlatiboko sintagma, baldintzazko egitura, atzizkien erabilera eta abar.

## II.3. DIALEKTOLOGIA-ATLASGINTZA

### II.3.1. EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako: Bizkaian 36 herri; Gipuzkoan ere 36 herri; Araban 1; Nafarroan 27; Lapurdin 15; Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 ordutik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

#### Atlasgintza

Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko (EHHA) lantaldeak 2000an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:



*Donibane Lohizuneko Maurice Ravel Auditoriumean, 2000-VII-21ean, Atlas batzordearen bilera; ezkerretik eskuinera: Gotzon Aurrekoetxea, Beñat Oihartzabal, Xarles Videgain, Juan Antonio Letamendia, Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola.*

- datuak base automatizatuan sartzen jarraitu
- datuak landu
- mapak prestatu, argitalpenari begira
- antologiarako audio materiala argitaratu.

### Laugarren koadernoko inkestak datuak sartzen jarraitu

2000. urtean 42 inkesta informatizatu dira EHHA egitasmoan.

- Bizkaian (20): Arrazola, Bakio, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Elorrio, Euba (Zornotza), Gizaburuaga, Ibarri, Kortezubi, Laukiz, Lekeitio, Lemoiz, Mendata, Ondarroa, Otxandio, Uribe-Etxebarri, Zeanuri, Zeberio eta Zollo.
- Araban (1): Aramaio.
- Gipuzkoan (10): Amezketeta, Araotz (Oñati), Asteasu, Ataun, Ezkio-Itsaso, Hondarribia, Legazpi, Leintz-Gatzaga, Tolosa eta Zegama.
- Nafarroan (5): Abaurregaina, Eugi, Jaurrieta, Zilbeti eta Zugarramurdi.
- Lapurdin (2): Itsasu eta Makea.
- Nafarroa Beherean (4): Armendaritze, Arruta, Bidarrai eta Gamarte.

Irudiak erakusten du 2000. urtean zein herrialdeetako inkestak informatizatu diren, eta zenbat gelditzen den oraindino informatizatzeko. Laugarren koadernoan 543 galderari buruzko informazioa dago, eta argitalpena errazteko bitan banatu da. Lehen atalak -4-a deituak- 273 galdera ditu, eta bigarrenak -4-b atalak- 270. laugarren ataleko galderetan teknologia tradizionala biltzen da.

#### 1. irud. Laugarren ataleko 4-a datu-sarreraren egoera lurraldeka

4-a ATALA	aurretik eginak	2000an eginak	egiteko	guztira
BIZKAIA	8	20	8	36
ARABA	0	1	0	1
GIPUZKOA	13	10	13	36
NAFARROA	15	5	7	27
LAPURDI	1	2	12	15
NAF. BEHEREA	3	4	11	18
ZUBEROA	3	0	9	12
GUZTIRA	43	42	60	145

#### Datuen lantzea:

##### - Lehen liburukia

Lehen liburukian jasotzen den gaiari zenbait ukitu egin zaizkio. Liburukia argitaratzeko prest utzi da.


##### - Bigarren liburukia

*EHHA* egitasmoa bigarren tomoko mapak amaituta daude. Autoedizioa ere amaituta aurkitzen da, azken berrikusketaren zain. Inprimategirako prest izateko sarrerak, indexak eta aurkibideak ezartzea falta da.

## - Hirugarren liburukia

Ekain aldera hasi dira prestatzaileak hirugarren liburukiko galderak lantzen. Dagoeneko 98 galderako informazioa landu eta dagozkien mapak burutu dira. Hirugarren liburukiak 271 mapa izango ditu eta une honetan % 36 burututa daude.

### 2. irud. Hirugarren liburukiko lanak 2000-XII-31an



### Ohiko euskal mintzamoldeen ANTOLOGIA-ren aurkezpena

EHHAko egitasmoan bildutako testuen aukeraketa batekin gauzatutako antologia argitaratu da: *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas: ohiko euskal mintzamoldeen antologia* (liburua eta 4 CD). Martxoaren 2an, Caja Laboral / Euskadiko Kutxa-ren Bilboko egoitza



Euskaltzaindiaren egoitzan, 2000-III-2an, **Euskal Herriko Hizkuntza Atlas: ohiko euskal mintzamoldeen antologia** aurkezterakoan; ezkerretik eskuinera: Juan Jose Arrieta, Isaak Atutxa, Andoni Unzalu, Koro Segurola, Jean Haritschelhar eta Izaskun Etxebeste.

nagusian eta Euskaltzaindiaren egoitzan aurkeztu da. Aurkezpen ekitaldian honako jaun hauek hartu dute parte:

- Juan Jose Arrieta Euskadiko Kutxa-ko zuzendari nagusiak.
- Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.
- Beñat Oihartzabal Dialektologia-Atlaseko batzordeburuak.
- Isaak Atutxa Dialektologia-Atlaseko batzordekideak.
- Andoni Unzalu Aurten Bai Fundazioko buruak.

Halaber, beste aurkezpen bat egin da Baionako ordezkarietan apirilaren 17an, Beñat Oihartzabalen eta Xarles Videgainen eskutik.

## II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi "Herri eta Herritarren Izenen batzordea" izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.

Batzorde honek, ponte-izenak, deiturak, leku-izenak eta exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.

### **Euskal Deituren Izendegia osatzen**

*Euskal Deituren Izendegia* 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 59 deitura erabaki dira batzordean 2000an zehar.

### **Ponte Izendegia**

Gizonezkoen zerrendan G-Z arteko izenak onartu dira. Bestalde, idazle eta bertsolari garrantzitsuenen izen literarioen zerrenda onartu da, ponte-izendegian erabiltzeko.

### **Biztanle entitateak (auzoak, herriak, eskualdeak...)**

*Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateen Izendegia* burutzeko ikerketari jarraituz, Araban 199, Bizkaian 19 eta Gipuzkoan 136 izen onartu dira.

### **Toponimia-lanak gainbegiratu**

Jose Javier Furundarenaren *Hondarribiko toponimia* eta Fernando Aranberriren *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* lanak gainbegiratu ditu batzordeak. Tolosa eta Getxoko Udalei ere laguntza eman die, udal horiek hala eskatuta, herri horietako toponimia-lanak egiteko ikerketak bideratu ahal izateko.

### **Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak**

1. Zarautz, Oiartzun, Gorniz, Barrundia, Laudio, Berango, Gasteiz, Bilar, Galdakao, Donemiliaga, Zamudio eta Trebiñoko udalek mankomunitate, udal, herrixka, kale eta industriaguneen izenei buruz egindako galderei erantzun zaie.
2. Orobat, Euskaltzaindiko Euskara Batuko batzordeak mundu osoko leku- eta pertsona-izenez, eta Azkue Biblioteka batzordeak leku-izen diren 110 eliza-izenez eta Nafarroako errege-erreginen izenez egindako kontsultei.
3. Euskal Irrati Telebistari exonimoetako artikuluen erabileraz ere batzordeak bere iritzia eman dio.
4. Mondragon Unibertsitateak ere zenbait leku-izenez egindako galderek izan dute erantzuna.
5. XL. Euskal Herriko Itzuliaren antolatzaileei mendate leku-izenez.
6. Gernika-Errenteriako Moja Mertzedariei ere erantzun zaie ikastetxe-izenaz.

## Kontsulta solteak

Herritarren 18 galderari erantzun die batzordeak, ponte-izenez eta deiturez.

## Onomastika Jardunaldietako partaidetza

Donostian, HABEren egoitzan, ekainaren 12tik 16ra Toponimiari buruzko Mintegia izan da, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak antolatua. Euskaltzainditik honako kide hauek hartu dute parte: Henrike Knörrek, Miren Azkaratek, Jose Luis Lizundiak, Patxi Salaberri Zaratiegik, Mikel Gorrotxategik eta Elena Martinez de Madinak. Quebec-eko Toponimia Bulegoaren jardun-bidearen berri zehatza eskaini zaie Mintegi horretan izan diren katalanei, galegoei, bretoiei eta Euskal Herriko hainbat adituri.

Bestalde, Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri Zarategi batzordekideek, Lleidakoko Unibertsitateak, 2000ko urtarrilean, toponimiaren normalizazioaz antolatutako jardunaldietan parte hartu dute.

## Beste Akademiakiko harremanak

Real Academia Española-k bere *Ortografía de la Lengua Española*-ren hirugarren eranskinean exotoponimoei eman dien trataera dela-eta, Euskaltzaindiak honako ekintza hauek gauzatu ditu:



*Egoitzan, 2000-IV-28an, Institut d'Estudis Calalans, Academia Galegako Onomastika batzordea eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen arteko bilera; ezkerretik eskuinera: Josep Moran Ocerinjauregui, Joan Anton Rabella Ribas, Xesus Ferro Ruibal, Anton Santamarina Fernandez, Henrike Knörr, Andres Iñigo, Patxi Salaberri Zarategi eta Jose Luis Lizundia.*

– Bilboko egoitzan, Institut d'Estudis Catalans-eko eta Academia Galega-ko Onomastika batzordeekin bildu da Euskaltzaindiko Onomastika batzordea, apirilaren 28an. Henrike Knörr, Andres Iñigo, Patxi Salaberri eta Jose Luis Lizundia batzordekideez gain, Josep Moran Ocerinjauregui, Joan Anton Rabella Ribas Institut d'Estudis Catalans-eko Onomastika batzordekideak eta Anton Santamarina Fernandez eta Xesus Ferro Ruibal Real Academia Galegako Onomastika batzordekoak ere han izan dira. Bilduek adierazpen bat prestatu dute eta ondoren prentsaurrekoa eman. Euskaltzaindiaren Zuzendaritza bat etorri da adierazpen horrekin eta maiatzean Real Academia Española-ren buru den Víctor García de la Concha-ri igorri dio Euskaltzainburuak gutun baten bidez.

– Uztailaren 17an, hiru Akademiak Santiago de Compostelan bildu dira, Real Academia de la Lengua Galegak gonbidaturik, apirilaren 28an hasitako gaiei jarraipena emateko.

## Toponimiako datu-basea

Toponimiako inbentarioa amaitu da eta horren ale bana EUDELi (Euskadiko Udalen Elkarteari) eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzari eman zaie.



Bestetik, toponimiako datu-basea gauzatzeari ekin zaio: programa diseinatu, zer datu-mota sartu aztertu eta fitxa sortu.

### **Gasteizko Toponimia lantaldea**

Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari lotuta eta lurraldeko ordezkartzan kokaturik, Toponimia lantaldea sortu zen 1996.ean. Harrezkero, ia 400.000 toponimoren sarrerak jaso ditu lantalde honek, behar izan diren artxiboetan arakatu ondoren.

2000. urtean hasi dira argitaratzeko prestaketa lanak. Lehenengo liburukiak, *Malizaeza* azpieskualdeko toponimoak jasoko ditu: Aretxabaleta, Armentia, Arriaga, Berroztegieta, Ehari/Ali, Eskibel, Gardelegi, Gaztelu/Castillo, Lasarte, Mendiola, Monasterioguren, Vitoria/Gasteiz eta Gasteizko herribaso goienak.

### **Arauk**

"Lapurdiko herri izendegia" onartu du Euskaltzaindiak osoko bilkuran.

### **Lapurdiko udal izendegiaren aurkezpena**

Irailaren 15ean, Angeluko Udaletxeko areto nagusian aurkeztu da *Lapurdiko herri eta herritarren izendegia*. Mahaian hauek izan dira:

- Robert Villenave, Angeluko auzapeza.
- Alain Lamassoure, BAB (Baiona-Angelu-Biarritz) udal elkarteko lehendakaria.
- Jean Haritschelhar, euskaltzainburua
- Henrike Knörr, Onomastika batzordeburua.



## II.5. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura batzordea bi arlo nagusitan ari da lanean. Batetik herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturaren hiztegia lantzen dihardu. Hitz zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera desberdineko txostenak eskainiz. Helburua berrogeita bat artikuluz luze, ehun artikuluz ertain eta seihun artikuluz laburrez osatutako hiztegia eskaintzea da.

Herri Literaturakoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek eskatzen badute nolabait Euskaltzaindiaren laguntza, hala nola sarike-tetako epai-mahaietan, sari banaketetan, hitzaldiak ematean. Bestalde, Literatura Ikerketa batzordeak, parte hartzen du autore ospetsuenen omenaldietan, ikerkuntza artikuluz argitaratuz, omendutako autoreei buruzkoak.

### II.5.1. HERRI LITERATURA

#### VI. Herri Literatura Jardunaldiak: *Esapideak*

Herri Literaturari buruzko VI. Jardunaldiak gauzatzea izan da, 2000.ean, azpibat-zorde honen lan nagusia. Abenduaren 28an eta 29an egin dira, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoi-tzan, Justo Maria Mokoroa zenaren jaiotzaren mendeurrenaren atarian.

Iaz aurreikusitakoaren ildotik, *euskal fraseologia* lantzeko aukera eskaini dute Jardunaldi horiek

Honako egitasmo honen arabera gauzatu dira jardunaldiak:



Egoitzan, 2000-XII-28an, VI. Herri Literatura Jardunaldietan; ezkerretik eskuinera: Joxe Ramon Zubimendi, Pello Esnal, Gloria Corpas, Alberto Zuluaga, Juan Manuel Etxebarria, Emile Larre, Jose Mari Aranalde, Juan Mari Lekuona eta Antton Aranburu.

### Abenduaren 28an

Juan Mari Lekuona Literatura batzordeburuaren sarreraren ondoren, hitzaldi hauek eman dira:

- "Corrientes actuales de la investigación fraseológica". Gloria Corpas Pastor, Malagako Unibertsitateko irakasleak.
- "Fraseología y (sub)conciencia social en Latinoamérica". Alberto Zuluaga, Tübingeneko Unibertsitateko irakasleak.
- "Fraseología: historia, oinarriak". Jabier Kaltzakorta, euskaltzain urgazlea, Labayruko kidea eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak.
- "En torno al concepto de colocación: perspectivas teóricas y aplicadas". Gloria Corpas Pastor, Malagako Unibertsitateko irakasleak.
- "Juan Mateo Zabalaren fraseología". Adolfo Arejita, euskaltzain urgazlea, Labayruko kidea eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak.

### Abenduaren 29an

- "Justo Mari Mokoroaren lana eta eragina". Xabier Kintana, euskaltzain osoa eta EHUko Euskara Kabineteburuak.
- "*Genio y lengua: euskal arima. Euskaldunak poema*". Jose Mari Aranalde, euskaltzain urgazle eta idazleak.
- Mahai-ingurua: "Mokoroaren *Ortik eta emendik* lanaz". Partaideak: Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Andolin Eguzkitza (euskaltzain urgazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea) eta Pello Esnal (euskaltzain urgazlea eta idazlea).
- Jardunaldien ondorioak.

Berrogeita lau lagunek hartu dute parte.

### Herri-literaturaren inguruko ekintzak

Batzordekideek emandako hitzaldiak:

- Joxe Mari Aranaldek "Ikasle berezi baten maisutza harrigarria", Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, *Antonio Zavala eta Herri Literatura* ekitaldian.
- Pello Esnalek "Antonio Zavala ikertzaile", Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, *Antonio Zavala eta Herri Literatura* ekitaldian.
- Jabier Kaltzakortak "Bilboko oihartzuna herri-literaturan", Deustuko Unibertsitatean, *Bilboko sorreraren 700. urtean* jardunaldietan.
- Jose Mari Aranaldek, Tolosako Institutuan, "Orixe Tolosan, edo Tolosa Orixerengan".

Antonio Zavalari omenaldia:

Tolosako herriak Antonio Zavala Herri Literatura azpibatzerkidea herriko "seme kuttun" izendatu zuen urriaren 7an, bertsolaritzaren alorrean egindako lan eskergatik. Ekitaldi horretan, Jose Mari Aranalde eta Juan Mari Lekuona batzordekideek parte hartu dute, lehenak hizaldia eginez eta bigarrenak Euskaltzaindia ordezkatzuz; Henrike Knörr euskaltzainburuordea ere han izan da.

## II.5.2. LITERATURA IKERKETA

### Idatzi eta eztabaidatutako txostenak

Batzordeak honako artikulua hauek prestatu eta eztabaidatu ditu.

a) Artikulu luzeak, batez beste 7-8 orrialdekoak:

Eleberria (nobela)  
Genero literarioak  
Klasizismoa

b) Artikulu ertainak, batez beste 2-3 orrialdekoak:

Ikuspuntua (edo fokalizazioa)  
Irakurlea  
Kritika marxista  
Mundu ikuskera  
*New criticism* (edo kritika berria)

c) Artikulu laburrak, normalean orrialde batekoak:

Ahopekari	In medias res
Aipamen	Iraupena
Aktore(sa)	Jokalari (ik. aktore)
Alegiak	Kardinala (funtzio, ik. gune)
Analepsi	Katalisia
Anapesto	Kotazio
Anbiguetate	Maite-kantuak
Argudio	Maiztasuna
Aurreratze (= Prolepsis)	Markodun kontaketa
Aurre-testu	Mitema
Autonomo (funtzioa)	Narrazio
Azal / Mami (ik. fondo / forma)	No
Bataila	Oin hautsia
Bigira	Ordena
Decorum	Oroitzapena
Deixi	Prolepsis
Didaskalia	Propaganda
Eduki (ik. azal / mami)	Publizitate
Egiantzekotasuna	Safiko
Elkarrizketa	Salmo
Eresi-irautsidsa	Sinalefa
Erregistro	Sineresi
Funtzio	Sinomoa (funtzioa)
Gaitasun literario	Tripodio (ik. oina)
Gune (funtzio)	Trokeo (ik. oina)
Hapax	Zantzu
Hartaile	Zenbakidun kantu
Hipertestu	
Igorle	

d) Lehendik eginak zeuden baina berrikusi diren txostenak honako hauek dira:

Ertainak:

Pizkundera (Euskal Pizkundera)  
Testuartekotasuna

Laburrak:

Absurdu	Ikusle
Agerleku	Itzal
Agerraldi	Jostirudi
Aitzin-pheredikü	<i>Kabuki</i>
Aitzin-solas	Katarsi
Anagnorisi	Komedia
Antzerki	<i>Lazzi</i>
Antzerkigile	Libreto
Antzerti	Liturgia-drama
Antzezkizun	Maskara
Antzeze	Maskarada
Antzez-ohar	Mimo
Antzoki	Mimodrama
Aparte	Misterio
Aporia	Opera
<i>Arlechino</i>	Opera txinarra
Astolasterrak	Opereta
<i>Atellana</i>	Pantomima
Auto sakramentala	Parada
Azken-solas (edo epilogo)	Paratestu
Bakarrizketa	Pastorala
Bufoikeria	Pastoraletako errima
<i>Commedia dell' arte</i>	Sainete
<i>Deus ex machina</i>	Satanak
Drama	Sataneria
Ekitaldi	<i>Sketch</i>
Errejenta	Sujeta
Errandoak	Tobera
Eszena	Tragedia
Eszenografia	Tragikomedia
Fartsa	Turkak
Galarrotsak	Txotxongiloak
Gau-bigirak	Tzintzarrotsak (ik. galarrotsak)
Hapening	<i>Vaudeville</i>
Ihaute	Zarzuela (ik. eresi-irautsidsa)
Ikuskizun	Zirko

### "Bordari"-ri omenaldia

2000ko azaroan, Hondarribiko Udalak Fernando Artola "Bordari"ri egin zion omenaldian parte hartu zuen batzordeak.

### Jose Ignazio Aranaren *Egunariaren* aurkezpena

Gipuzkoako Diputazioan, Jose Ignazio Aranaren *Egunaria* liburua aurkeztu zen otsailaren 24an. J. L. Lizundia eta J. A. Arana jaunek hitzaurrearen eta epilogoaren egile bezala hitz egin zuten. Gero, Patxi Altunak berak azaldu zuen zer den prestatu duen lana. Azkenik, Rosa Miren Pagola mintzatu zen Deustuko Unibertsitatearen ordezkari gisa. Liburu hau Gipuzkoako Foru Diputazioaren Kultura Sailaren, Gipuzkoako Kutzaren eta Deustuko Unibertsitatearen laguntza-babesarekin argitaratu da.

### II.5.3. SARIKETAK

#### a) Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

BBK Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2000ko irabazleak honako hauek izan dira:

- Txomin Agirre eleberri saria: *Historia lazgarria*. Aitor Arana.
- Toribio Altzaga antzerki saria: *Aldi joana, joana*. Juan Karlos del Olmo.
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: *Amodioa batzuetan*. Juan Ramon Madariaga.
- Mikel Zarate saiakera saria: *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*. Patxi Juaristi.

Epaimahaikoak honako jaun-andre hauek izan dira:

- Txomin Agirre sarian: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.
- Toribio Altzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Andolin Eguzkitza.



*Egoitzan, 2000-XII-15ean, literatura-sarien banaketa: Txomin Agirre eleberria, Toribio Altzaga antzerkia, Felipe Arrese Beitia olerkia eta Mikel Zarate saiakeraren 2000ko irabazleak jakinarazi zireneko ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Juan Ramon Madariaga, Aitor Arana, Juan Karlos del Olmo eta Patxi Juaristi.*

b) **R. M. Azkue sariak**

Euskaltzaindiak idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2000ko R. M. Azkue sari-irabazleen izenak:

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10-13 urte	1) <i>Bakea</i> 2) <i>Kasu, berehala da mundua sorginen menpe</i> 3) <i>Dirua, beti dirua!</i>	Joana Antxordoki Erviti Arantza Camus Etxekopar  Maitena Duhalde de Serra	Xalbador (Kanbo) Xalbador (Kanbo)  Xalbador (Kanbo)
A: olerkia 10-13 urte	1) <i>Lo zorroan</i> 2) <i>Zu-bidaia-ametsa</i> 3) <i>Zain nago</i>	Eñaut Aiartzaguena Bravo Mireia Buenetxea Eizagirre Ander Garmendia Arzallus	Orobiogoitia (Iurreta) Urola (Azpeitia) Urola (Azpeitia)
B: narrazioa 14-17 urte	1) <i>Izenik gabeko beste bat</i> 2) <i>Azken malkoak ote?</i> 3) <i>Berasa edo zalantzaren apologia</i> Accesit: – <i>Gorko hila</i> – <i>Abelio</i> – <i>Oraindik</i> – <i>Denborak ezin du ohiturekin</i>	Iratxe Esnaola Aldaondo Ixiar Zubiaurre Bengoetxea Ander Audikana Arriola  Iratxe Esnaola Aldaondo Haize Maiztegi Landa Iraitz Agirre Aranguren Irati Arostegi Urreta	S. Tomas (Donostia) Txindoki (Beasain) Ikas-Bidea (Gasteiz)  S. Tomas (Donostia) Pio Baroja (Irun) Almen (Arrasate) Txindoki (Beasain)
B: olerkia 14-17 urte	1) <i>Argitasunez ihintzatutako gaua</i> 2) <i>Iraganaz omen gaude eginak...</i> 3) <i>Bakardadearen irri galdua</i> Accesit: – <i>Gure arbasoek</i> – <i>Bakardadearen hotsa</i> – <i>Bizitzaren amildegietan</i> – <i>Fa bemol (edo bizitzarena)</i> – <i>Gaztaina saltzailearen bizipenak</i>	Irati Goikoetxea Asurabarrena Eider Zubelzu Loiarte Odei Arregi Eizagirre  Laura Asensio Merino Uxue Alberdi Estibaritz Odei Arregi Eizagirre Ander Audikana Arriola Jon Agirre Ojanguren	(Beasain) La Salle (Donostia) Ikastola (Azpeitia)  La Salle (Donostia) Institutua (Elgoibar) Ikastola (Azpeitia) Ikas-Bidea (Gasteiz) Andra Mari (Zornotza)

Epaimahaikide honako jaun-andre hauek izan dira sariketa honetan: *A mailan*, Amagoia Lopez de Larruzea, Manu Lopez Gaseni eta Gerardo Markuleta; *B mailan*, Joseba Butron, Joan Otaegi eta Jabier Kaltzakorta.

**Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea**

- Urtero Madrilan ematen diren "literatur sari nazionalerako" Euskaltzaindiaren izenean parte hartuko duten epaimahaikideen izendapena onartu da: poesia arlorako, Lourdes Otaegi Imaz; narratiorako, Patri Urkizu Sarasua; saiakerarako, Jon Kortazar Uriarte; antzerkirako, Ana Toledo Lezeta; haur eta gazte literaturarako, M. Jose Olaziregi Alustiza; itzulpen sarirako, Lourdes Auzmendi Aierbe eta "Premio Nacional de las Letras Españolas" delakorako Miren Azkarate Villar. Epaimahaikide hauek, Literatura batzordearen eraginez, Donostiako ordezkartzan bildu dira jarre-  
ra bateratu bat lortzeko.
- Bertso jarrien sariketa hauetako epaimahaietan hartu dute parte kide hauek:
  - Abel Muniategik, Zarauzko *Basarri* bertso jarrien sarian.
  - Orexako *Orix*e bertso jarrien sarian, Joxe Mari Aranaldek.
  - Juan Mari Lekuona mahaiburu izan da *Manuel Lekuona* bertso-paper-lehiaketako sari-banaketan.
  - Zarautzen, bertsolari gazteentzat antolatutako *Lizardi* sarian, Pello Esnal gidari eta epaimahaiko izan da.
- Bestalde, Patziku Perurena, euskaltzain urgazlea, izan da Euskaltzaindiaren izenean Iruñeko Udalak urtero antolatzen duen literatura lehiaketarako epaimahaian.



## II.6. EUSKARA BATUA

Euskaltzaindiak aspaldi dihardu batasungintzan. Eta batasungintza esatea eta araugintza esatea bat dira. Arau proposamen bat gertatzen denean, Euskara Batuko batzordearen eskutik iristen da euskaltzain osoengana. Batzorde honek iragazten du, nolabait dago-kion batzordetik prestatua datorren oinarriko proposamena.

Euskara Batuko batzordeak, hala iritziz gero, aholkua eskatzen die euskalgintzako alor desberdinetan lanean ari diren profesionali, direla administrazioetako funtzionarioak, argitaletxeetako eta komunikabideetako euskara-zuzentzaileak, nahiz irakaskuntza-munduko teknikariak, itzultzaileak, idazleak eta abar.

### Araugai berriak

Hiztegi Batuko batzordetik edo Gramatika nahiz Onomastika batzordetik etorritako txostenak aztertu eta eztabaidatu ditu Euskara Batuko batzordeak hilez hil. Euskaltzain osoen hileroko batzarrean aurkeztu dira txostenak, beti ere oharra egiteko epea izan delarik. Ondoren adierazten diren hitz-zerrenda eta txosten hauek izan ditu batzorde honek aztergai:

Hiztegi Batua:

- *tobera* - *triskantza* hitz-zerrenda
- *zabal* - *zuzen* hitz-zerrenda
- nazioarteko hitzen zerrenda
- *udal* eta *barruti* hitzak
- *Ipar.* eta *Naf.* marka jarri beharreko hitzak
- *a* - *zuzter* hitz-zerrendaren berrikusketa
- *harri* hitzaz osatutako hitz-zerrenda
- *ontzi* hitzaz osatutako hitz-zerrenda
- Hiztegi Batuko 2. itzuliko *a* - *aberats* hitz-zerrenda.

Batzordeak, hitz-zerrenda hauez gain, euskaltzainek horiei egindako 1.006 hitzeko ohar-txostenak ere aztertu ditu.

Euskaltzaindiak *Hiztegi Batuaren* bigarren itzuliari ekin baino lehen, gogoeta-saio luzea egin du. Horretarako, "Hiztegi Batuko irizpideak: 2. itzulia" izeneko dokumentua prestatu du batzordeak. Dokumentu hau sarritan osatu eta zuzendu da Euskaltzaindiaren osoko batzarretan egin diren oharren edota hartu diren erabakien eraginez.

Gramatika:

- "Mugatu singularra noiz erabil daitekeen iraupena eta maiztasuna adierazten duten zenbatzailedun sintagmetan".
- "Perpaua izenlagun osagarrien atzizkiak: *-eN* / *-eLAKO*".
- "Komunztadura aposizioetan".
- "Izen sintagmen arteko juntadura dela eta".

Onomastika:

Onomastika batzordeak prestatuturiko "Lapurdikoko herri izendegia" aztertu du eta zortzi ohar egin dizkio.

### **Hizkuntza kontsultak**

"Geografia hitzen zerrenda": *Instituto Geográfico Nacional*-etik egindako irizpen-  
-eskabideari erantzuteko proposamena egin du batzordeak, ondoren osoko batzarrean aurkeztu dena.

## II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du *Jagon Saila*, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarrita duelako. Bestalde, 1999an egindako X. Barne Jardunaldietan sail hau bi batzordetan banatzea erabaki zen:

- *Corpus* batzordea euskararen corpora jagoteaz arduratuko da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratuko da.

### II.7.1. CORPUS ALORRA

#### Jagonet zerbitzua

##### Jagonet: kontsulta- eta aholku-zerbitzua

2000. urtean Jagonet zerbitzua abian jarri da. Zerbitzu honek bere arduraduna izango du, Donostiako ordezkartzan kokatua, eta erantzule-taldea osatuko duten batzorde-ordezkarien zerrenda ere erabaki zuen Euskaltzaindiak. Hauexek dira *Iker* eta *Jagon* sailburuez gainerakoak:

- Hiztegi-gintza batzordetik: Ibon Sarasola eta Jose Antonio Aduriz
- Gramatika batzordetik: Patxi Goenaga eta Jesus Mari Makatzaga
- Onomastika batzordetik: Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri
- Euskara Batuko batzordetik: Pello Salaburu

##### Jagonet-en zer eskainiko den

Jagonet-ek bost atal eskainiko ditu Euskaltzaindiaren webgunean:

1. *Galde-erantzunen datu-basea*, egundaino emandakoak bilduko dituen.
2. Bereziki azalduko da webgunean *Ohiko galderak* delako atala. Bertan aurkitu ahal izango dira, maiztasunaren arabera zerrendaturik, euskaltzaleek sarrienik egindako galdera eta zalantzak, bakoitza bere erantzunarekin.
3. *Galdeleku informatikoa*, posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa.
4. *Plaza Barria* izeneko posta-zerrenda, web bidezkoa, orokorra eta erabat irekia. Euskarari buruzko foro zabal honetan nornahik har dezake parte, horretarako aski izanik harpide-fitxa betetzea lehenengo aldian. Bestalde, harpidedun ez direnek ere noiznahi ikus dezakete, Internet bidez, zer dioten partehartzaileek; baina harpidedun egin gabekoak ikusle hutsak izango dira Euskaltzaindiaren plaza zabal honetan.
5. *Banaketa-zerrenda(k)*, *posta elektronikoko bidezkoak*, alorrez alorreko euskalgintzako profesionalen laguntzekoa. Dagoeneko eratua dagoen Corpus batzordeko Komunikabideen lantaldeko kideekin hasi da. Zerrenda murriztuak izango dira, eta bertako kide guztiek aldi berean jasoko dituzte galde-erantzunak eta proposamenak.

### **Jagonet: galderak nola bideratuko diren**

Posta elektronikoz heltzen diren galderak, bistan denez, Jagonet-etik bertatik erantzungo dira edota gaiaren arabera dagokion batzordeko erantzuleari igorriko zaizkio. Galderak horiek lehenik datu-basera jo eta han argitu gabekoak izango dira.

### **Jagonet: zer galde daitekeen**

Euskal hiztegia, terminologia (arruntena bakarrik), morfologia eta sintaxiarekin zer ikusia duten galderak egiteko lekua izango da Jagonet. Hortik kanpoko gaiak nekez erantzun ahal izango die Jagonet-ek: esate baterako, erdal hitz jakinetarako euskal ordain zuzenak zein diren jakin nahi duenari, edota testu jakin baten itzulpena eskatzen duenari edo ikerkuntzarako laguntza-bila datorrenari (adibidez, autore jakin batek ea halako egitura erabili duen, edo zenbat bider erabili duen galdezka datorrenari).

### **EROSKIrekiko hitzarmena**

Azaroaren 30ean sinatu da egoitzan Eroski eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena Jagonet egitasmoa babesteko.



*Egoitzan, 2000-XI-30ean, Eroski Fundazioak babesteko duen Jagonet zerbitzuaren aurkezpenean; ezkerretik eskuinera: Miren Azkarate eta Joxe Ramon Zubimendi.*

### **Komunikabideen lantaldea**

Euskararen kalitatea zaintze aldera, lantalde hau, batetik, Euskaltzaindiaren Arauak eta Iker sailekoen gainerako lanak euskalgintzako plazan aldarrikatzen ahaleginduko da, eta, bestetik, kazetariei beren kezka nagusiak argitzen laguntzen: euskara batuaren eta euskalkien arteko zubi ezak dakarkeen nahasketa gaintzea, gramatika legez harantzago testuak lantzea eta antolatzea (koherentzia, egokitasuna eta beste lortzeko bideak landuz), hortxe ikusten baita kalitatearen galerarik larriena. Dena dela, lehenik albisteen atala lantzea erabaki du lantalde honek.

## **Euskalkien lantaldea**

Euskalkien lantaldea ere osatu da, besteak beste Mendebalde Alkarteko eta Labayruko ordezkariak bertan direlarik. Euskal Herritik kanpora dialektoekin zer-nola jokutzen den aztertzea, eta hemengo egoera alorrez alor begiratzea erabaki du lantalde honek (hezkuntzan, administrazioan, herri-aldizkarietan, lan-munduan, aisialdiko euskalgintzan...).



## II.7.2. SUSTAPEN ALORRA

### Hizkuntza-eskubideei buruzko materiala

Euskaltzaindiak euskararen inguruan azken urteotan egin dituen adierazpenak bildu ditu batzordeak. Horiek webgunera joango dira eta bertan kokatuko, euskararen sustatze lanari buruzko alorrean.

### Bake Justizia Jardunaldietan parte hartzea

Martxoaren 11n egin dira Bake Justizia Jardunaldiak Bilbon, Justizia Jauregian. Jardunaldi hauek administrazioak egindako eskabideari erantzuteko antolatu ziren, Justizia Ministerioak deitura-aldaketez indarrean jarritako dekretu batean (azaroaren 5eko 40/1999 Legean) oinarriturik, baina, bide batez, ponte-izenez ere jardun zen.



*Bilbon, 2000-III-31n, Buenos Aires kaleko Justizia Jauregiko liburutegian, Bake Justizia Jardunaldietan; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia, Mikel Gorrotxategi, Inmaculada de Miguel Herrán eta Alicia Sánchez.*

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Justizia Ministerioko "Consejo General del Poder Judicial" delakoak antolatu dituzten Jardunaldi horietan 40 lagun inguru izan dira, gehienbat Bizkaiko herrietako bake-epaileak.

Jardunaldi horietan -lehen atalean, "Euskal Onomastika eta Erregistro Zibila" izenekoan- Euskaltzaindiak eraman du gidaritza bi hitzaldirekin parte hartuz:

- "Criterios de normalización de apellidos": Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkariak.
- "Nombres y apellidos vascos: grafía y ley": Andres Urrutia, Jagoneko Sustapen batzordeburuak. Txostenaz gain, Erregistro Zibiletan izenaren eta deituraren inguruan erabiltzen diren dokumentuak euskarara itzulita eskaini ditu hizlariak, bake-epaileentzat lagungarri izango direlakoan. Hamaika dokumentu izan dira.

Jardunaldi horien mahaian, aipatu bi hizlari horiez gain, hauek izan dira: Inmaculada de Miguel Herrán, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria, eta Alicia Sánchez, Bilboko Erregistro Zibileko Epaile magistratua.

Maiatzaren 6an antzeko Jardunaldiak egin dira Donostian, Justizia Jauregian, Gipuzkoako bake-epaileentzat eta Zizur Txikiko San Fermin Ikastolan, irailaren 28an, Nafarroakoentzat.

### Trebiñoko auziaz

Gaztela-Leongo Juntak Trebiñoko udal bien erabakiak indargabetu zituela-eta, bi udal horiek Euskaltzaindiari egindako eskaria aztertu du batzordeak eta iritzia eman:

- Euskaltzaindia ezin da sartu administrazio desberdinen arteko auzietan zuzenean.
- Hala ere, Euskaltzaindia bada nor euskararen inguruko gaiez arduratzeko -kasu honetan Trebiñoko euskal toponimoak nola diren irizpena emateko- Espainia osoan.

### Nafarroa: euskararen auziaz

- Nafarroan, alderdi politikoen eta agintarien artean euskarari buruz sortu zen eztabaida zela eta, Nafarroako gobernuburuari eta komunikabideei adierazpena igortzeko proposamena egin zuen batzordeak. Ekainaren 29an bidali zuen Euskaltzaindiak bere adierazpena.
- Euskaltzaindiak, azaroaren 24ko osoko batzarrean, Nafarroako gobernuburu den Miguel Sanz Sesma jaunari gutuna egitea erabaki du. Nafarroan 135/1994 Foru Dekretua ordezkatzeko dagoen proposamena aztertu ondoren, Administrazio Publikoan euskararen erabilera murriztu nahi dela ikusiz, Euskaltzaindiak bere kezka adierazi dio eta Zuzendaritza lehenbailehen har dezala eskatu.



Egoitzan, 2000-X-27an, Sustapen batzordean bilera; ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Juan San Martin, Juan Mari Lekuona, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Henrike Knörr eta Piarres Charritton.



### **III. Erakunde zerbitzuak**




## III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

### III.1. ZERBITZU OROKORRAK: EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Hizkuntzaren Akademia den aldetik, euskararen arautzearen eta normaltzearen eremu garrantzitsua dagokio Euskaltzaindiari. Jarduera akademikoan, Zuzendaritzak gidatuta, batzorde eta lantaldeen bidez ari da Euskaltzaindia. Langintza horien emaitzak gizabaliabide eta azpiegitura zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira zerbitzu hauek.

#### **Egoitza eta ordezkariak**

Zerbitzu batzuk bere orokortasunean egoitza eskaintzen badira ere -hala nola, Azkue Biblioteka, argitalpenak, diruzaintza, Zuzendaritza, idazkariordetza-kudeaketa eta harreman nagusiak-, beste batzuk, berriz, maila berean ematen dira egoitzan nahiz ordezkarietan. Bilboko egoitza, Bizkaiko Foru Aldundiak lagatako eraikuntza den legez, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko ordezkariak Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako Foru Administrazioek utzitako tokietan daude.



*Donostiako ordezkarietan:  
Maixa Goikoetxea.*

#### **Jendaurreko zerbitzuak**

Bost bulegoetan jendaurrekiko zenbait zerbitzu ematen ditu Euskaltzaindiak. Direla ponte-izen edo deituren ziurtagiriak, 2000. urtean 469 eman dira; direla kontsulta, argibide nahiz aholku bila, etortzen dira hiritarrak Akademiaren bulegoetara. Bere web-orria eskueran jarri den unetik, jende gehiago izan da erakundearen zerbitzuak jasotzen. Egoitzan 5.026 pertsona izan dira aurtan.

## **Ikastaroak**

Gasteizko Kultura zerbitzuak urtero antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu du Euskaltzaindiak 2000. urtean modu berezi batez. Ordezkaritzatik hiruhilabeteko ikastaro bat antolatu da “Ekin eta Jarrai (Euskaltzaindiaren inguruan)” izenburuarekin. Hamasei hitzalditan Akademiaren historia, antolaketa eta batzorde desberdinetako lanak azaldu dira:

- Euskaltzaindiaren historia eta egoera. Jose Luis Lizundia: “Euskaltzaindia gaur egun”; Jose M. Satrustegi: “Euskaltzaindiaren historia”.
- Jagon alorrean. Jose Ramon Zubimendi: “Euskararen zuzentasuna”; Andres Iñigo: “Nafarroako euskararen estatusa”.
- Onomastika. H. Knörr - M. Gorrotxategi: “Toponimia eta Onomastikaren estandarizazioa”; Elena Martínez de Madina: “Gasteiz hiriko toponimia”.
- Gramatika. Jesus M. Makazaga: “Azken arauak”; Patxi Goenaga: “Gramatika batzordearen egitasmoak”.
- Dialektologia. H. Knörr: “Arabako euskara”; Gotzon Aurrekoetxea: “Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa”.
- Ahoskera. Ahoskera lantaldea: “Prosodiaren irakaskuntza”; M. Lourdes Oñederra: “Ahoskera arautzeaz”.
- Hiztegiak. Ibon Sarasola: “Lexikografiaz”; Jose A. Aduriz: “Hiztegi Batua”.
- Literatura. Gorka Aulestia: “Gerraondoko euskal literaturgileak”; Pello Esnal: “Herri Literatura”.

## **EGA ziurtagiria Iparraldean**

Baionako ordezkariari dagokio Euskararen Gaitasun Agiriaren antolakuntza Iparraldean. Urte honetan 65ek lortu dute agiri hori.

## **Aretoen erabilera**


Egoitzako eta ordezkarietzako aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita egon dira, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako. Euskaltzaindiak berak zuzenean antolatu dituzenez gain, 2000. urtean zehar, beste zenbait erakunde eta elkarteri, euskararekin zerikusia dutenei, aukera eman zaie erabiltzeko.

## **Zuzendaritzaren kokagunea**

Hilean bi aldiz biltzen da, gutxienez, Zuzendaritza. Egoitzan du bere kokagunea eta idazkariordeak antolatzen du kudeaketa dagokien kargudunekin. Erakundearen gobernu dagokio Zuzendaritzari, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardun-bidearen agintea. Zuzendaritzaren bilkurak gehienetan Bilbon egin dira, baina gainerako ordezkarietzan ere egin dira, Donostian bereziki.

## **Iparraldeko urteroko bilkura**

Legeak agintzen duenez, Iparraldeko euskaltzain oso eta euskaltzain urgazleek, urtero egin ohi duten bilkura egin dute Baionako ordezkarietan. Martxoaren 21ean egin da bilkura. Hogei bat lagun baziren. Ordezkaritzarentzat Baionako herriak duela bi urte hitzemandako *Gazteluberriko* barneez izan da solasa. Barne horiek ez dira oraindik prest. Orainokoa, beraz, lehengo lekuan egon beharko. Arazoaren berri Jean Grenet auzapezari ematea erabaki da.



*Egoitza, 2000-VI-2an, kanpo aldeko horman, erloju azpian EUSKALTZAINDIA hitzaren letrak ezarri ziren.*

### **Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua**

Eragile teknikaria arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Egiten diren lanen berri ematen die idazkariorde-kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta ezarritako epeetan Herri Administrazioei.

Herri Aginteeekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere eragile teknikariak burutzen ditu.

### **Zenbait argitalpenen prestaketa**

- *Aita Juan Mateo de Zabalaren Sermoiak (II)*. Sermioen birrazterketarekin eta *Lekukoak* saileko liburukirako zuzenketa lanekin bukatu da urte honetan Gasteizko ordezkariak. Liburu hau urrian kaleratu da.
- Patxi Ondarra euskaltzainaren gidaritzapean, Polikarpo Iraizozkoaren lanen argitalpenerako Iruñeko ordezkariak bulegoan egindako edizio prestaketak 2000. urtean bukatu dira eta Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak urte honetan plazaratu du Iraizozko euskaltzain zenaren lan guztiak biltzen dituen azkeneko liburukia, hots, bildumaren hirugarrena, *Hitz lauuko lanak II* izenburua daramana.

### **Albiste Orria**

Barneko informazio-buletina da aldizkari hau. 2000an zehar 52.etik 62.era bitarteko zenbakiak atera dira. Bertan, erakundearen lanak, bilerak, egitasmoak, erakunde arteko

harremanak, ospakizunak, jardunaldiak, liburu-aurkezpenak, sari-banaketak, hitzarmenak, akordioak, txosten eta adierazpen garrantzitsuenak jasotzen dira. Buletin hau ere eragile teknikiaren esku dago.

### **Informatika azpiegitura**

Hauek dira informatika alorrean egindako lan nagusienak:

- Sistema informatikoaren ezarpena: hardware eta software berria instalatu eta moldatu da.
- Ezarritako sistemaren mantenua gauzatu da.
- Telekomunikazio sisteman hobekuntzak egin dira. (Internet, e-mail eta telefonian).
- Euskaltzaindiko webgunea kaleratu da:
  - Erakundeari buruzko informazioa
  - Harremanetarako datuak
  - Urteko jarduera nagusien berri ematea
  - Zerbitzu berriak: *Deituren izendegiaren* kontsulta; argitalpenen katalogoa; argitalpen digitalak (Internet-en bidez kontsultatu eta irakurtzeko); *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren antologia*, Frai Bartolomeren *Idazlan guztiak*; *Hizkuntza Arau guztiak* eta *Hiztegi Batua* Interneten ikusgai jarri dira.
- JAGONET hizkuntza kontsulta zerbitzua sortu da:
  - Galde-erantzunen datu-base berezia
  - Galdelekua
- Lankideentzako ikastaroak: Ordenagailu bidezko kudeaketa ekonomikoa, programazioa eta ofimatika eskaini da.
- *Orotariko Euskal Hiztegiaren* aplikazio berria ezarri da eta aurreko datuak bertara migratu, hiztegia gaur egungo modu estandarrera eramanetz.

### **Zabalkunde eta Prentsa Bulegoa**

Zabalkunde eta Prentsa Zerbitzua sortzea erabaki da 2000. urtean. Erakundearen eta komunikabideen arteko loturak sendotu nahi dira, gizarteak Akademiaren jardunaren berri izan dezan. Zeregin nagusi hauek egotzi zaizkio bulego honi:

- Hedabideekiko komunikazio zuzena, Akademiaren jardunaren berri ematea;
- Euskaltzaindiaren historiaz eta kideez informazioa osatzea eta eguneratzea;
- Erakundearen webgune eta antzeko berri-emanaldietan laguntzea.

## III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

Azkue Bibliotekaren baitan bi alderdi bereizten dira: alde batetik, zerbitzua, hots, bertako langileek burutzen dituzten lanak (funtsean, mota guztietako dokumentuak eskuratu, antolatu eta ikertzaileen eskura jarri), eta, bestetik, batzordea, zeinen eginkizuna baita lan horiek zehaztea eta beroriei beharrezko sostengu akademikoa eskaintzea. Hori dela eta, bi ataletan banatuko da azalpena.

### III.2.1. AZKUE BIBLIOTEKA ZERBITZUA

#### Biblioteka eta artxiboa

- Erabiltzaile kopurua: 814 lagun, horietatik 51 artxiboa kontsultatzeko
- Erabiltzaile berriak: 106
- Eskaera bibliografiko arruntak: 1.290 dokumentu
- Barne mailegu zerbitzua: 175 dokumentu
- Erreprografia zerbitzua: 21.451 fotokopia

#### Dokumentazio eta informazio zerbitzua

- a) Ahozko kontsulta bibliografiko arruntak: 700.
- b) Idatzizko kontsulta bibliografiko bereziak: 100.

#### Eskurapenak

##### *Liburuak:*

Guztira 1.483 liburu sartu dira, dohainekoak, erosiak edo trukezkoak.

##### *Aldizkariak:*

Azkue Bibliotekan 425 aldizkari jasotzen dira: 76 trukez, 263 dohainik eta 86 ordainduta.

##### *Erosketa bereziak:*

Erosketa hauek bereziki aipagarriak dira:

- Miguel Unamuno: *Obras completas*, Ed. Afrodisio Aguado, Madrid, 1958.
- Antoine Court de Gébelin: *Monde primitif*, Paris, 1775-1781.
- Justin Cenac-Moncaut: *Histoire des peuples et des états pyrénéens*, Paris, 1860.
- *Jesusen bihotz Sakratuaren alderako deboçionearen exerçiço espiritualak*, Baiona, 1831.
- Henri M. Fay: *Lepreux et cagots du Sud-Ouest*, Paris, 1910.
- Edouard Philipon: *Les ibères*, Paris, 1909.
- *Archives Municipales de Bayonne: Registres gascognes. Registres français*. 1896.
- *Glosas emilianenses*. Edizio faksimilea, 1992.

- *Pueblos del País Vasco*, 1946.
- *Arte y cultura vasca, Euzko Deya*, 1943.

### **Azkue Bibliotekako katalogazio zerbitzua**

Aurten bi lan nagusi egin dira: ABKren zuzenketa orokorra eta urte honetan eskuratutako liburuak katalogatzea. 2.023 liburu berri katalogatu dira

*Zuzenketak:*

- a) Antzinako liburuen sarrera guztiak aztertu eta zuzendu dira.
- b) Sarrera nagusiak: banako egile eta egile korporatibo guztien sarrera nagusiak aztertu dira, onartutako katalogazio-erregelaren arabera aldaketak eginez.
- c) Gaiak: gai-sarrera guztiak ere berraztertu dira.
- e) Sailkapen Hamartar Unibertsala: hainbat sarrera aldatu dira, 1995eko bertsiara egokituz.

Oro har, kasu guztietan gutxienez, bi orrazketa egin dira. Horrela, Azkue Bibliotekako Katalogoa argitaratzeko gertu gelditu da.

### **Bestelakoak**

*Georges Lacomberen artxiboa:*

Aurten bukatu da Georges Lacomberen artxihoaren digitalizazioa. Lan hori Olaso Dorrea Sorrerakundearen (artxihoaren jabea), Eusko Jaurlaritzaren IRARGI Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentruaren eta Euskaltzaindiaren artean egin da. Artxibo osoa 43 CDtan digitalizatu da eta Azkue Bibliotekan kontsultagai dago.

*ERESAIN enpresaren artxiboa:*

ERESAIN enpresak Euskaltzaindiari 1983tik 1998ra bitarteko artxiboa eman dio, ehundaka film, dokumental, marrazki bizidun edota telesailen gidoiez dago osatua. 104 kuxtatan gordetzen da eta zerrendatuta dago.

*Toponimiako datu basea:*

EUDEL-en eta Eusko Jaurlaritzaren eskariz, eta Onomastika batzordearekin elkarlanean, Euskaltzaindiaren artxiboa goitik behera arakatu da eta toponimiari buruzko txosten eta agiri argitaragabeekin 1.052 txosteneko datu basea osatu da.



*Egoitzan, 2000-X-26an, Andima Ibinagabeitiaren artxiboa Euskaltzaindiari emate-ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Henrike Körr, Jean Haritschelhar, Lorea eta Maitena Mentxaka ahizpak, Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta Prudentzio Gartzia.*



*Andima Ibinagabeitiaren artxiboa:*

Andima Ibinagabeitiaren borondatea betez, Lorea eta Maitena Mentxaka Ibinagabeitia andreek beren osaba zenaren artxiboa Euskaltzaindiari eman diote. Azkue Bibliotekak artxiboa taiutzeko eta gida bat *Euskera*-n argitaratzeko erabakia hartu du.

*Jon Urruxulegi jaunaren dohaintza:*

Urruxulegi jaunak liburu dohaintza bat egin dio Euskaltzaindiari.



### III.2.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

#### Katalogazio eta terminologia erregelak

Aurreko urteetan bezala, oraingoan lantaldearen egitasmo nagusia euskaraz katalogatzerakoan sortzen diren arazoak aztertzea eta erabakitzea izan da. Iaz erabakitako lan-metodologiari segituz, beste lau katalogazio-erregela eta bost termino-zerrenda onartu dira.

Horretaz gain, sarrera nagusien salbuespenezko kasuekin bi zerrenda prestatu dira, sarrera bakoitza sakonki eztabaidatuz eta hortik salbuespenen kasuistikarako irizpideak adostuz.

Hona hemen horiek zehatzago:

- 14. katalogazio-erregelaren 1. eranskina: *Bigarren deitura eta bizitza-datei buruzko eranskina*, zeinetan deitura bat edo bi erabiltzea eta egilearen bizitzako datak jartzeari finkatzen baita.
- 18. katalogazio-erregela: *Egilea esaldi baten bidez adierazten denean*, zeinetan sarrera nagusiei buruzko irizpideak zehazten diren.
- 19. katalogazio-erregela: *Tildearen erabilerari buruzko katalogazio-erregela*.
- 20. katalogazio-erregela: *Diputazio eta Batzar Nagusien sarrera nagusiak egiteko katalogazio-erregela*. Besteak beste, zehazten da noiz *Diputazioa* eta noiz *Aldundia*, noiz *Foru* eta noiz *Probintzia*, eta abar.
- Terminologia-zerrendei dagokienez, guztira 5 zerrenda eta 446 sarrera onartu dira.
- Banako egileen 37 sarrera nagusi espresuki aztertu dira, 14. katalogazio-erregelaren salbuespentzat jo behar ote diren ala ez erabakitzeko.

Ondorioz, Azkue Biblioteka Katalogoaren lehen fasea, monografiari dagokiena, 2000an bukatutzat jo da, argitaratzeko prest utziz.



### III.3. ARGITALPENAK

#### III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen hauek bideratu dira:

##### 1. *Euskera* agerkaria

– *Euskera* (2000, 1) liburukian 1999. urteko urritik 2000. urteko martxora arteko batzar-agiriak, hitzarmenak, hizkuntza-arauak, sari-emateak, hitzarmenak, irizpenak, ikerlanak, txostenak, hilberri-txostenak, liburu-aurrekezenak eta berriak; guztira 472 orrialde.

– *Euskera* (2000, 2) zenbakiak gai monografikoa du: *Hiztegi Batua*. Guztira, 284 orrialde.

##### 2. *Euskaltzaindiaren ARAUAK*

Hauek dira 2000an zehar, 3. karpetan, XVII. eta XVIII. sortetan argitaratu diren hizkuntz arauak:

103. Hiztegi Batua: *tabako* - *to*
104. Hiztegi Batua: *tobera* - *triskatu*
105. Hiztegi Batua: *triskilatu* - *tzartasun*
106. Hiztegi Batua: *ubarroi* - *yuppie*
107. Hiztegi Batua: *zabal* - *zuzter*
108. Lapurdiko udal izendegia
109. Komunztadura aposizioetan
110. Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen.
111. Izen sintagmen arteko juntadura dela eta.

3. *Lapurdiko herri eta herritarren izendegia* (*Euskera*, 2001-1aren separata). Euskal Herrialde honetako toponimo nagusien zerrenda finkatua agertzen da.

4. Aita Juan Mateo de Zabala: *Sermoiak (II)*.

Juan Mateo Zabalaren sermoien bigarren -eta azken- liburukia dugu hau. "Euskararen lekukoak" saileko 21. liburukia. Edizioa Luis Villasanterena da, eta babeserak Bizkaiko Diputazioaren Kultura sailarena.

5. *Ohiko euskal mintzamoldeen ANTOLOGIA* (4 CD)

Euskal Herrian zehar Atlaserako egin diren inkestetatik minutu eta erdiko lagina eskaintzen da 4 CD hauetan: I. CDan Bizkai-Arabakoak, II.ean Gipuzkoakoak, III.ean Nafarroa-Lapurdikoak eta IV.ean Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak. Euskadiko Kutxaren diru-laguntza babesarekin kaleratu da antologia hau.



Bizkaiko Diputazioan, 2000-VII-4an, **Frai Bartolome Santa Teresa: Idazlan guztiak** liburuaren aurkezpenean; ezkerretik eskuinera: Luis Baraiazarra, Jose Antonio Arana Martija, Ana Madariaga, Gorka Martinez eta Julen Urkiza.

#### 6. Frai Bartolome Santa Teresa: *Idazlan guztiak*

"Euskararen lekukoak" bildumako 20. liburukia. Hemen biltzen dira bizkaierazko idazle klasiko honen lan osoak. Edizioaren arduradunak Luis Baraiazarra eta Julen Urkiza izan dira. Bizkaiko Diputazioko Kultura Sailaren eta Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzari esker argitaratu ahal izan da liburu hau.

#### 7. II. Onomastika Jardunaldien Agiriak / *Actas de las II Jornadas de Onomástica*

*Onomasticon Vasconiae*, 17. Urduñan 1987an Licenciado Pozaren laugarren men-deurrenkari antolatu ziren jardunaldion hitzaldi eta txostenak biltzen dituena. Jardunaldien gai nagusia, gaur egun euskaldun eremuko ez diren eskualdetako toponimoen ikerketa izan zen.

#### 8. Eibar eta Elgetako Toponomastika / *Toponomástica de Eibar y Elgeta*.

*Onomasticon Vasconiae*, 21. Auzo diren herri hauetako toponimia historikoa eta lekukotua biltzen da liburu honetan. Juan San Martinek paratua da, eta Eibar eta Elgetako Udalen eta Gipuzkoako Kutzaren gizarte-ekintza / Obra Social-en babesarekin argitaratua.



Elgetako Udaletxean, 2000-XII-21ean, **Eibar eta Elgetako Toponomastika / Toponomástica de Eibar y Elgeta** liburuaren aurkezpenean.

## **Saritutako lanen argitalpenak**

### *9. Narrazioak eta olerkiak*

1999ko R. M. Azkue Saria. Sari hori irabazitako idazlanak biltzen dira liburu honetan. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak urtero antolatzen duten sariketaren irabazleen lanak biltzen dira.

### *10. Nazio-identitatea eta eskola*

Joxe Manuel Odriozola Lizarribar. 1999ko Mikel Zarate saiakera saria.

### *11. Bake biltzarraren ildotik.*

Mikel Ugalde Ugarte. 1999ko Toribio-Altzaga antzerki-saria.

### *12. Hautsia natza*

Juan Luis Zabala Artetxe. 1999ko Felipe Arrese Beitia olerki-saria.

### *13. Ipuin-entzulea*

Aitor Arana Lauzuriaga. 1999ko Txomin Agirre eleberri-saria.





### III.3.2. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

#### Argitalpen salmenta

Banaketa:

Euskaltzaindiak argitalpenen banaketa, banatzaileen bitartez egiten du gehienbat. Hala ere, Euskaltzaindiaren *Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du, eta ondorioz argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak 2000. urtean 2.278 dira, eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 350. Gainerako argitalpenei dagokienez, liburudendei 76 argitalpen saldu zaizkie, banatzaileei 1.685 eta gizabanakoei 1.128.

Ohiko salmentekin, eta *Arauen* zein *Euskera* agerkariaren harpidetzekin lortutako diru emaitza 16.969.041 pezetakoa izan da. Iaz baino 122.490 pta gehiago.

Merkataritza ikuspegia:

Banatzaile eta liburudendentzako kopurua gutxitu egin da, baina *Arauak* argitalpenaren harpidedunek apur bat gora egin dute. Eskaintza bereziak ere egin dira eta arrakasta izan dute.

Gehien saldu diren argitalpenak *Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia* eta *EGLU V: Mendeko Perpausak (I)* izan dira.

2000. urtean Euskaltzaindiak bere webgunea martxan jarri du eta hor argitalpenen katalogoa ezarri da. Honela, nahi duenak interneten bitartez argitalpenak kontsultatzeko eta erosteko aukera izango du.

Trukezko harremanetan 711 ale banatu dira.

#### Azokak

Durangoko urteroko Azoka, abenduaren 5, 6, 7, 8, 9 eta 10ean izan da eta bi saltokitan aritu da Euskaltzaindiaren argitalpen zerbitzua.

Gerediaga Elkarateak iaz hasitako digitalizazioari jarraipena eman dio, zeinetan Euskaltzaindikoko argitalpenak eguneratuak izan diren. Bestalde, Euskaltzaindikoko webguneko atal batzuk ikusgai izan dira, saltokian Euskaltzaindiak ezarritako ordenagailu batean.

Beste zenbait azoka:

Euskaltzaindiaren zerbitzu hau, Durangoko 35. Liburu eta Disko delakoaz gain Donibane Lohizuneko euskal liburu eta diska azokan izan da. Bestalde, Euskal Herrian izan diren beste zenbait liburu eta diska azokatan izan ez arren, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez hainbat tokitan izan dira salgai; azoken ikerketa daraman "Abarka" enpresaren hitzetan, gehienbat hiriburuetan eta uda inguruan, kostaldean (Ondarroa, Lekeitio, Zarautz eta abar) izaten dira azoka garrantzitsuenak.

## **Gordailua**

Euskaltzaindiak Bilbo ondoko Etxebarri herrian duen gordailuak bi xede nagusi ditu, besteak beste:

### *Saltzeko liburuen gordailua*

1998an egin zen argitalpen guztien inbentarioari jarraipen zehatza eman zaio. Hortaz gain, gordailuan obra berriak egin dira, berregituratu eta informatizatu.

### *Artxiboa*

Erakundearen artxiboa, betetzen duen funtzioaren arabera, bi alorretan bana daiteke:

- Barne artxiboa: Euskaltzaindiak, urteetan zehar bildu, landu eta ekoitzi duen dokumentazio sailkatua gordetzeko erabiltzen dena.
- Kanpo artxiboa: Kanpoko erakunde, elkarte, talde eta abarri erosiz, trukaturaz zein dohainik jasoz, bildu diren material sailkatuen gordetegia; alegia, liburuak, aldizkariak, egunkariak, posterrak eta abar, gordetzeko erabilia.

Kanpo artxiboari dagokionez, 2000.ean gordailuan zeuden Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako egunkarien eta aldizkarien hemerotekarekiko berrantolaketa lanak aurrera eramán dira, adibidez, ia XX. mende osoa hartzen duen *La Gaceta del Norte* egunkariaren sailkatze eta egituratzeak.

## **IV. Aurrekontuak**



## 2000. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

### DIRU-IRTETEA

**464.906.463 pta.**

1. Ibilgetu materiala	28.095.491,-
2. Kanpo zerbitzuak	70.300.110,-
- Ikerketa eta garapen gastuak	27.225.675,-
- Alokatzekak	2.432.368,-
- Konponketak eta zaintzea	7.935.818,-
- Zerbitzu profesionalak alokatzea	8.637.159,-
- Bidalketak	2.759.586,-
- Aseguruak	797.327,-
- Banku zerbitzuak	1.159.288,-
- Zabalkunde gastuak	830.000,-
- Horniketarak	17.850.401,-
- Bestelako zerbitzuak	672.488,-
3. Batzorde eta egitasmoak	168.971.748,-
- Euskara Batua	835.451,-
- Hiztegi Batua	2.660.203,-
- Orotariko Euskal Hiztegia	58.731.782,-
- Gramatika	2.878.849,-
- Ahoskera	212.729,-
- E.H.H.A. (Hizkuntz Atlasa)	21.173.261,-
- Onomastika	19.014.961,-
- Herri Literatura	1.642.320,-
- Literatura Ikerketa	1.820.761,-
- Jagon (Corpusa)	2.040.430,-
- Jagon (Sustapena)	22.530,-
- Azkue biblioteka	15.359.305,-
- XV. Biltzarra	198.816,-
- UZEIrekiko hitzarmena	42.380.350,-
4. Argitalpen bereziak	8.891.651,-
5. Zergak	194.349,-
6. Gizabanakoei ordainketak	144.973.251,-
7. Beste zenbait gestio gastu	3.091.530,-
8. Finantza gastuak	2.912.207,-
9. Ibilgetu eta aparteko galerak	2.000.000,-
10. Amortizazio zuzkidurak	24.838.788,-
11. Kaudimen hornidurarako zuzkidurak	12.437.338,-

**2000. URTEKO KONTU ERRENDAPENA**

<b>DIRU-SARTZEAK</b>		<b>464.906.463 pta.</b>
1. Salmenten itzulketak		(149.300,-)
2. Ustiaketarako laguntzak		291.342.515,-
- Hezkuntza Ministerioa	115.000.000,-	
- Eusko Jauriaritza	101.949.635,-	
- Nafarroako Gobernua	16.983.063,-	
- Arabako Foru Diputazioa	8.286.505,-	
- Bizkaiko Foru Diputazioa	26.653.499,-	
- Gipuzkoa Foru Diputazioa	16.983.063,-	
- Iparraldeko Herri Aginteak	3.750.000,-	
- Udalak	1.736.750,-	
3. Ustiapenerako laguntza helburutuak		56.529.924,-
- Herri Aginteak (UZEI)	37.380.349,-	
- Gasteizko Udala (Toponimia)	10.000.000,-	
- Tolosako Udala (Lit. Jard.)	400.000,-	
- Bestelako laguntzak	1.224.900,-	
- Argitalpenetarako laguntzak	7.524.675,-	
4. Kudeaketa sarrerak		21.905.762,-
- Salmentak	16.696.441,-	
- Gestio arrunteko zerbitzuak	5.209.321,-	
5. Finantza sarrerak		3.914,-
- Korrituak	3.914,-	
6. Aparteko sarrerak (Ibilgetu mozkinak)		34.649.698,-
- Ekitaldiko kapital laguntzak	21.601.694,-	
- Aparteko sarrerak	13.048.004,-	
7. Hornidura-soberakinak		2.785.132,-
8. Kapitalekiko laguntzak		57.838.818,-

## **V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak**





## V. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEEKIKOAK

Euskaltzaindiak Herri aginte eta administrazioekin harreman estuak ditu. 1919an Akademiaren sortzaile izan ziren lau diputazio huek: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa. Sortzaile orduan, babesle gaur. Babesleen artean ditugu, halaber, Eusko Jaurlaritza, alde batetik, eta baita Espainiako Erreina ere, bestetik. Honek 1976an eman zion aitortpen ofiziala. Sei Herri administraziook dira Euskaltzaindiaren babesle nagusiak.

Lehendabizikoz agertzen delako, sail honetan aipatu beharrekoa da Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra ere, Ipar Euskal Herria hartzen duen departamendu-erakundeak hitzarmena sinatu baitu Euskaltzaindiarekin.

Era berean, Euskaltzaindiak udalekin ere baditu harremanak. Unibertsitate eta kultur erakundeak ere agertzen dira Euskaltzaindiaren harreman sarean.

### V.1. EAEKO ETA NAFARROAKO HERRI AGINTEAK

#### "III. Hitzarmena" eta "2000ko Eranskina" sinatzea

Martxoaren 3an, egoitzan, sinatu du Euskaltzaindiak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko bost Herri Aginteekin III. Hitzarmena eta urte horri dagokion eranskina:



*Egoitzan, 2000-III-3an, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko bost Herri-Aginteek Euskaltzaindiarekin III. hitzarmena sinatzea; ezkerretik eskuinera: Ana Madariaga, Mari Carmen Garmendia, Jean Haritschelhar, Jesús María Laguna, Luis Mari Bandres, M. Josune Ariztondo eta Patxi Goenaga.*

- *III. Hitzarmenaren sinatzaileak honako hauek izan dira:* Mari Carmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua; Jesús María Laguna, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta Kultura sailburua; Pedro Sancristóval, Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua; Ana Madariaga, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatua; Luis Mari Bandres, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol diputatua, eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.
- *2000ko Eranskinarenak, berriz:* Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Fernando Pérez de Viñaspre, Nafarroako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; Pedro Sancristóval, Arabako Kultura diputatua; Ana Madariaga, Bizkaiko Kultura diputatua; Luis Mari Bandres, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol diputatua, eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

### **Nafarroako Gobernuarekiko harremanak**

Otsailaren 22an, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak, Nafarroako ordezkaria eta idazkariorde-kudeatzailea, Miguel Sanz Sesma, Nafarroako gobernuburuarekin bildu dira.

Ordezkariek Fernando Pérez de Viñaspre, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiarekin zenbait bilera izan ditu, bi erakundeon arteko gaiez eta euskararen inguruan Nafarroan sortzen ari den giro nahasiaz aritzeko.

## V.2. ESTATU ADMINISTRAZIOA

### **Euskaltzaindiaren Arautegi berriztatua BOEn**

Hezkuntza eta Kultura Ministerioak, otsailaren 25eko 272/2000 Erret Dekretuaren bidez (ikus 2000-III-4ko *BOE* delakoa), Euskaltzaindiaren Arautegi eraberritua ofizialki indarrean jarri du. Arautegiko artikulua hauek aldatu dira: 1, 5, 15, 17, 18, 19, 20, 25, 27, 28, 36, 40 eta 41.a. Horietan agertzen dira: Zuzendaritzaren osaera eta iraupena gehitzea, egoitzaren aldaketa, ziurtagiri, txosten eta irizpenen eskumena, bilkuren izaera eta moten sailkapena eta erakundearen agerkariaren eta argitalpenen azalpena.

### **Hezkuntza Ministerioa**

Irailaren 12an Madrilen izan dira, Hezkuntza eta Kultura Ministerioan, Jose Luis Lizundia eta Juan Jose Zearreta. Erret Akademiekiko harremanetarako arduradun izendatu berria den Carmen Bárcena andrearekin bildu dira, erakunde-kudeaketaz eta Hezkuntza Ministerioko aurrekontuetan Akademiarentzat dagoen dirulaguntzaz aritzeko.

### ***Arbor-en aurkezpena***

Hezkuntza eta Kultura Ministerioako Consejo Superior de Investigaciones Científicas erakundeak, bere *Arbor (ciencia, pensamiento y cultura)* hilabetekariaren maiatzeko aleak Espainiako Erreinuako Goimailako Akademia Erakundeez dihardu. Patxi Goenaga idazkariak egin du Euskaltzaindiari buruzko lana "Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia 80 años de trabajo por la normalización del vasco" izenburuarekin.

Urtarrilaren 19an, Gasteizko ordezkartzan, egin da *Arbor-en* ale monografiko honen aurkezpena. Mahaiburuan, euskaltzainburuaz gain, Juan Jose Ibarretxe Euskadiko Lehendakaria, eta Juan Jose Goiriena Eusko Ikaskuntzako burua izan dira.



### V.3. PIRINIO ATLANTIKOETAKO DEPARTAMENDUA

Pauen, abenduaren 15ean, 2000.etik hasi eta hiru urterako hitzarmena sinatu dute Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak eta Euskaltzaindiak. François Bayrou kontseiluburuak eta euskaltzainburuak sinatu dute Hitzarmena. Hona hemen Hitzarmen horren ezau-garri jakingarrienak:

- Euskaltzaindiari euskararekikoak finkatzerakoan duen itzala aitortzen zaio.
- Euskaltzaindiak, Lexikoaz, Hiztegiez, Gramatikaz, Dialektologiaz, Onomastikaz eta Literaturaz hasiak dituen lanak aitzina eramanen dituela hitz ematen du.
- Azken hiruhilabeteen, urtean zehar egindako lanaren balorazioa egingen dute Administrazio eta Akademia erakunde biok, eta hurrengo urterako helburuak gehi-garri gisa atxikiko.
- 2000. urteari dagokionez, Euskaltzaindiari 150.000 libera (3.750.000 pezeta) emango dio Departamenduak.
- Diru-kopuru horrek xede hauek ditu: Euskaltzaindiaren Baionako ordezkartzari babesa ematea eta bi lan hauek argitaratzea: Pedro de Yrizar-ek prestatuturiko *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental: tomo III* liburugaia, eta Eugène Goyheneche-ren *Onomastique du Nord du Pays Basque* izeneko tesia.

Hitzarmena frantsesez eta euskaraz dago.



## V.4. UDALAK

### EUDEL

Euskadiko Udalen Elkartearekin amaitu du 2000. urtean Euskaltzaindiak bere lehen hitzarmena, erakunde honen eta Eusko Jaurlaritzaren babesekin gauzatu ahal izan baita *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateen Izendegia*. Hitzarmen berri baterako lehen urratsak egin dira jadanik EUDEL-en bazkide diren udal administrazioek etengabeko aholkularitza izan dezaten toponimia alorretan, batez ere hiri-toponimian eta bide-seinale berrietan.

### Bilboko Udala

Apirilaren 14an, Bilboko Udaletxean izan da Zuzendaritza Iñaki Azkuna alkatearekin. Lehendabizi, euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren ekintzen eta lan nagusien berri eman dio. Ondoren, 2001ean egingo den XV. Nazioarteko Biltzarraren berri eskaintzen zaio, ohorez-



*Bilboko Udaletxean, 2000-IV-14an; ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Henrike Körr, Jean Haritschelhar, Iñaki Azkuna, Patxi Goenaga eta Jose Antonio Arana Martija.*

ko batzordekide izatea eskainiz eta Udalarri babesa eskaturik. Begi onez ikusi du hori Azkuna jaunak Bilboren 700. urteurrena ospatzeko egingo den egitarauaren barnean. Azkenik, beste hiriburuetan bezala, Bizkaikoak ere Euskaltzaindiarekin hitzarmena egitea onuragarri izan daitekeela adierazi zaio.

### **Gasteizko Udala**

Euskaltzaindiak, Gasteizko Udalarekin sinatua duen Hitzarmena betez, uztailean, Gasteizko alkatea den Alfonso Alonso Aranegui jaunari, hiri horretako ordezkarietan egin-dako lanak azaltzen dituen *Memoria* eman dio. Aipatutako idazkian, Ordezkaritzak lurraldean eman dituen zerbitzuen eta hiriko toponimia aztertzen ari den lantaldearen egitasmoaren berri ematen da.

### **Iruñeko Udala**

Otsailaren 22an, Yolanda Barcina, Iruñeko alkatearekin bildu dira Euskaltzaindiaren ordezkariak. Bileran, bi erakundeen arteko harremanez jardun dute bilduek, 1997tik hona lankidetzatza-hitzarmena sinatu baitute urtero Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak.

### **Iturengo Udala**

Iturengo Udalak maiatzeko ekitaldietan Euskaltzaindiari eskaini zion laguntza eskertzeko asmoz, ekainaren 30ean, Euskaltzaindikoko kide hauek izan dira Iturenen: Nafarroako ordezkaria, idazkariorde-kudeatzailea, ekonomia eragilea eta eragile teknikaria.

### **Trebiño eta Argantzungo Udalak**

Trebiñoko Konterriko herri-izendegia burutzeko toponimia azterketa egitea eskatu diote Euskaltzaindiari Udal biek. Onomastika batzordeak lantalde bat eratuko du horretarako.

### **Angelu eta beste zenbait Iparraldeko udal**

Urtarrilaren 2an Jean Haritschelhar euskaltzainburua, Angeluko auzapeza den Alain Lamassoure-rekin mintzatu da Akademiaren eginkizunez. Beste hainbat herritako auzapezekin ere harremanak izan ditu Baionako ordezkariak.

### **Nafarroako zenbait herri-erakunde**

Iruñeko ordezkariak kontsulta-harremanak izan ditu zenbait mankomunitate, udal eta kontzejuekin, besteak beste, Ipar Nafarroako eta Uharte-Esteribar-Arangurengo mankomunitateekin, Jaurrietako Udalarekin eta Gabarderal eta Berriobeitiko kontzejuekin.

### **Euskaltzaindiaren bilerak udaletxeetan**

2000. urtean, zenbait mendeurren edo ospakizun direla medio, Euskaltzaindia Euskal Herriko zenbait udaletxeetan bildu da: Legazpikoan, osoko batzarra eta Zuzendaritza; Iturengoan, osoko batzarra, Zuzendaritza eta Hiztegi-gintza Jardunaldia; Hondarribikoan, Onomastika eta Literatura Ikerketa; Angelun eta Elgetan, Onomastika.



## V.5. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### 2000ko Hitzarmen-eranskina

Goian aipatutako Hitzarmenaren ondoren, 2000ko Eranskina ere sinatu dute erakunde bi horien ordezkariak. Euskal Herriko Unibertsitateak laguntza emango dio Euskaltzaindiari lan hauen argitalpena bideratzeko:

- *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (I)*
- *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental (II)*
- *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental (III)*

### Errektorea Euskaltzaindian

Maiatzaren 12an, Euskaltzaindiaren egoitzan egin den *Toponimia Medieval en el País Vasco (A-Z)* 4 liburuen aurkezpenean, Henrike Knörr euskaltzainburuordearekin eta Ángeles Libano liburuen egilearekin batera, Manuel Montero Euskal Herriko Unibertsitateko errektore izendatu berria izan da. Liburuok Euskal Herriko Unibertsitatearekin Euskaltzaindiak duen Hitzarmenaren babespean argitaratu dira.



Egoitzan, 2000-V-12an, *Toponimia Medieval en el País Vasco (A-Z)* liburuen aurkezpenean; ezkerretik eskuinera: Henrike Körr, Manuel Montero eta Ángeles Libano.



**VI. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia /  
Organigrama y directorio de Euskaltzaindia /  
Organigramme et adresses d'Euskaltzaindia:**

**VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak /  
Relación de académicos y cargos /  
Listes des académiciens et des responsables**

**VI.2. Batzordeen zerrendak /  
Comisiones académicas /  
Commissions de travail d'Euskaltzaindia**

**VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama /  
Organigrama de la Real Academia de la Lengua  
Vasca / Euskaltzaindia /  
Organigramme d'Euskaltzaindia**

**VI.4. Bulego helbideak /  
Directorio /  
Répertoire**



**VI.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK /  
RELACION DE ACADÉMICOS Y CARGOS /  
LISTES DES ACADÉMICIENS ET DES RESPONSABLES**

**EUSKALTZAIN OSOAK / ACADÉMICOS DE NÚMERO / ACADÉMICIENS TITULAIRES**

Patxi Altuna  
Jose Antonio Arana Martija  
Miren Azkarate  
Pierre Charritton  
Jean-Louis Davant  
Xabier Diharce "Iratzeder"  
Patxi Goenaga  
Jean Haritschelhar  
Andres Iñigo  
Xabier Kintana  
Henrike Knörr  
Emile Larre

Juan Mari Lekuona  
Beñat Oihartzabal  
Patxi Ondarra  
Txomin Peillen  
Pello Salaburu  
Juan San Martin  
Ibon Sarasola  
Jose Mari Satrustegi  
Andres Urrutia  
Luis Villasante (†)  
Patxi Zabaleta  
Antonio Zavala



*Oñatin, Arantzazuko elizan, 2000-XII-4n, Luis Villasanteren hileta-elizkizunetan; ezkerretik eskuinera: Juan Jose Ibarretxe, Jean Haritschelhar, Jesús María Laguna eta Roman Sudupe.*

## **ZUZENDARITZA / JUNTA DE GOBIERNO / DIRECTION**

*Jean Haritschelhar*, euskaltzainburua / *Presidente* / *Président*  
*Henrike Knörr*, buruordea / *Vicepresidente* / *Vice-président*  
*Patxi Goenaga*, idazkaria / *Secretario* / *Secrétaire*  
*Jose Antonio Arana Martija*, diruzaina / *Tesorero* / *Trésorier*

## **ORDEZKARIAK / DELEGADOS / DÉLÉGUÉS**

Gipuzkoa / Guipúzcoa / Guipuzcoa: *Juan Mari Lekuona*  
Araba / Álava / Alava: *Patxi Goenaga*  
Nafarroa / Navarra / Navarre: *Andres Iñigo*  
Iparraldea / País Vasco Aquitano / Pays Basque Nord: *Pierre Charritton*

## **ERAGILEAK / GESTORES / RESPONSABLES**

*Jose Luis Lizundia*, idazkariorde-kudeatzailea / *Vicesecretario-gerente* / *Secrétaire adjoint et gérant*  
*Juan Jose Zearreta*, ekonomi eragilea / *Gestor económico* / *Responsable économique*  
*Prudentzio Gartzia*, Azkue Bibliotekako zuzendaria / *Director de la Biblioteca Azkue* / *Directeur de la Bibliothèque Azkue*  
*Ricardo Badiola Uriarte*, argitalpen eragilea / *Gestor de publicaciones* / *Responsable des publications*  
*Pello Telleria*, eragile teknikaria / *Gestor técnico* / *Responsable technique*

## **VI.2. BATZORDEEN ZERRENDAK / COMISIONES ACADÉMICAS / COMMISSIONS DE TRAVAIL D'EUSKALTZAINDIA (\*)**

### **IKER SAILA / SECCIÓN DE INVESTIGACIÓN / SECTION RECHERCHE**

*Iker* sailburua / Director / Directeur: Beñat Oihartzabal

#### **I. HIZTEGIGINTZA batzordea / Comisión de LEXICOGRAFÍA / Commission du DICTIONNAIRE**

Burua / Presidente / Président: Ibon Sarasola

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da / Esta comisión se divide en dos subcomisiones / Cette commission se divise en deux sous-commissions:

##### **I.1. Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) lantaldea / Equipo de trabajo del Diccionario General Vasco (OEH) / Groupe de travail du Dictionnaire Général de la Langue Basque**

*Arduraduna / Responsable / Responsable:* Iñaki Segurola

*Kideak / Miembros / Membres:* Arantza Egia, Ainara Estarrona, Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Amaia Olabarria, Ainhoa Otamendi.

##### **I.2. Hiztegi Batuko lantaldea / Equipo de trabajo del Vocabulario Unificado / Groupe de travail du Dictionnaire Unifié**

*Arduraduna / Responsable / Responsable:* Jose Antonio Aduriz

*Kideak / Miembros / Membres:* Luis Baraiazarra, Pierre Charriton, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia.

#### **II. GRAMATIKA batzordea / Comisión de GRAMÁTICA / Commission de GRAMMAIRE**

Burua / Presidente / Président: Patxi Altuna

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Jesus Mari Makatzaga

*Kideak / Miembros / Membres:* Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charriton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose Mari Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Patxi Ondarra, Karnele Rotaetxe, Pello Salaburu.

---

(\*) Izendapen hauek 1999 eta 2000rako dira / Estos nombramientos son para el bienio 1999-2000 / Ces nominations concernent les années 1999 et 2000.

### **III. DIALEKTOLOGIA batzordea / Comisión de DIALECTOLOGÍA / Commission de DIALECTOLOGIE**

*Burua / Presidente / Président:* Beñat Oihartzabal

#### **Atlasgintza lantaldea / Equipo de trabajo del Atlas Lingüístico del País Vasco / Groupe de travail de l'Atlas Linguistique du Pays Basque**

*Arduradunak / Responsables / Responsables:* Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain  
*Kideak / Miembros / Membres:* Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose M. Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Juan Antonio Letamendia, Koro Segurola.

### **IV. ONOMASTIKA batzordea / Comisión de ONOMÁSTICA / Commission d'ONOMASTIQUE**

*Burua / Presidente / Président:* Henrike Knörr

*Idazkari / Secretario / Secrétaire:* Mikel Gorrotxategi

*Kideak / Miembros / Membres:* Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Jean-Baptiste Orpustan, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

#### **Exonomastika / Exonomástica / Exonomastique**

Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.

#### **Aholkulariak / Asesores / Conseillers**

Patxi Galé, Jose Antonio González Salazar, Roldan Jimeno Aranguren, Jose Maria Jimeno Jurío, Jose Luis Ormaetxea, Eugenio Riaño, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Patxi Uribarren, Amaia Usabiaga.

### **V. LITERATURA batzordea / Comisión de LITERATURA / Commission de LITTÉRATURE**

*Burua / Presidente / Président:* Juan Mari Lekuona

#### **V.1. Herri Literatura azpibatzerdea / Subcomisión de Literatura Popular / Sous-commission de la Littérature Populaire**

*Arduraduna / Responsable / Responsable:* Juan Mari Lekuona

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Pello Esnal

*Kideak / Miembros / Membres:* Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Xabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

#### **V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea / Subcomisión de Investigación Literaria / Sous-commission de la Recherche Littéraire**

*Arduraduna / Responsable / Responsable:* Juan Mari Lekuona

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Karlos Otegi

*Kideak / Miembros / Membres:* Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Luis Mari Mujika, Maria Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Muñoa, Ana Toledo, Patri Urkizu.



**VI. EUSKARA BATUKO batzordea / Comisión de EUSKARA UNIFICADO /  
Commission du BASQUE UNIFIÉ**

*Burua / Presidente / Président:* Pello Salaburu

*Idazkaria / Secretaria / Secrétaire:* Miren Azkarate

*Kideak / Miembros / Membres:* Patxi Altuna, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal,  
Ibon Sarasola.

**VII. JAGON SAILA / SECCIÓN TUTELAR / SECTION SAUVEGARDE**

**VII.1. Corpus batzordea / Comisión del Corpus / Commission du Corpus**

*Burua / Presidenta / Présidente:* Miren Azkarate

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Joxe Ramon Zubimendi

*Kideak / Miembros / Membres:* Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone  
Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Paskual  
Rekalde.

**VII.2. Sustapen batzordea / Comisión de Promoción / Commission de la  
Promotion linguistique**

*Burua / Presidente / Président:* Andres Urrutia

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Gotzon Lobera

*Kideak / Miembros / Membres:* Erramun Baxok, Pierre Charritton, Patxi Goenaga,  
Andres Iñigo, Henrike Knörr, Juan Mari Lekuona, Juan San Martin.

\* \* \*

**EGITURAZKO BATZORDEAK / COMISIONES ESTRUCTURALES / COMMISSIONS  
STRUCTURELLES**

**VIII. ARGITALPEN batzordea / Comisión de PUBLICACIONES / Commission des  
PUBLICATIONS**

*Burua / Presidente / Président:* Jean Haritschelhar

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Ricardo Badiola Uriarte

*Kideak / Miembros / Membres:* Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana  
Martija, Beñat Oihartzabal, Miren Azkarate, Patxi Altuna.

**IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea / Comisión BIBLIOTECA AZKUE / Commission  
de la BIBLIOTHÈQUE AZKUE**

*Burua / Presidente / Président:* Jose Antonio Arana Martija

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Prudentzio Gartzia

*Kideak / Miembros / Membres:* Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Jose Mari Larrarte, Juan San  
Martin.

**Aholkulariak / Asesores / Conseillers**

Joseba Agirreazkuenaga, Andolin Eguzkitza, Jose Maria Jimeno Jurio, Henrike  
Knörr.

**X. LEGE-EKONOMIA batzordea / Comisión ECONÓMICO-JURÍDICA / Commission ÉCONOMICO-JURIDIQUE**

**X.1. Lege azpibatzerdea / Subcomisión jurídica / Sous-commission juridique:**

*Burua / Presidente / Président:* Andres Urrutia

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Jose Luis Lizundia

*Kideak / Miembros / Membres:* Jon Artatxo, Jon Castañares, Abel Muniategi, Patxi Zabaleta.

**X.2. Ekonomia azpibatzerdea / Subcomisión económica / Sous-commission économique:**


*Burua / Presidente / Président:* Jose Antonio Arana Martija

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Juan Jose Zearreta

*Kideak / Miembros / Membres:* Xabier Erdozia, Sebastian Garcia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose M. Makua Goienetxe.

**VI.3. EUSKALTZAINDIAREN ORGANIGRAMA /  
ORGANIGRAMA DE EUSKALTZAINDIA /  
ORGANIGRAMME D'EUSKALTZAINDIA**

# E U S K A L T



# Z A I N D I A

ME... PLÉNIÈRE

GO... BIERNO / DIRECTION

IO... GERENTE / SECRÉTAIRE ADJOINT GÉRANT  
1

SAILBURUAK / DIRECTORES DE SECCIÓN / DIRECTEURS DE SECTION

EKONOMI ERAGILEA /  
GESTOR ECONÓMICO /  
RESPONSABLE ÉCONOMIQUE  
1

ERAGILE TEKNIKARIA / GESTOR TÉCNICO / RESPONSABLE TECHNIQUE

ER...  
BLIC...  
E PU...  
AGILEA /  
ACIONES /  
BLICATIONS  
1

BATZORDEAK / COMISIONES / COMMISSIONS

HIZTEGIA /  
DICCIONARIO /  
DICTIONNAIRE

HIZKUNTZ ATLASA /  
ATLAS LINGÜÍSTICO /  
ATLAS LINGUISTIQUE

BESTE BATZORDEAK /  
OTRAS COMISIONES /  
AUTRES COMMISSIONS

ZUZENDARIA /  
DIRECTOR /  
DIRECTEUR  
1

ZUZENDARI TEKNIKOAK /  
DIRECTORES TÉCNICOS /  
DIRECTEUR TECHNIQUE  
2

JE...  
1

TEKNIKARIAK /  
TÉCNICOS /  
TECHNICIENS  
8

TEKNIKARIAK /  
TÉCNICOS /  
TECHNICIENS  
2

TEKNIKARIAK /  
TÉCNICOS /  
TECHNICIENS  
3

EN...  
ON...  
ON...  
TA ARDURADUNA /  
SABLE DE VENTAS /  
SABLE DE VENTES  
1

ADMINISTRARIA /  
ADMINISTRATIVA  
1

GARBITZAILEA /  
LIMPIADORA /  
FEMME DE MÉNAGE  
1



## VI.4. HELBIDEAK / DIRECTORIO / ADRESSES

### EGOITZA / SEDE / SIÈGE

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf.: (00-34) 94 415 81 55  
Faxa / Fax: (00-34) 94 415 81 44  
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: info@euskaltzaindia.net  
Http://www.euskaltzaindia.net  
Arduraduna / Responsable / Responsable: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA AZKUE / BIBLIOTHÈQUE AZKUE  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf.: (00-34) 94 415 27 45  
Faxa / Fax: (00-34) 94 415 00 51  
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: azkuebib@euskaltzaindia.net  
Zuzendaria / Director / Directeur: Pruden Gartzia

GORDAILUA / ALMACÉN / DÉPÔT  
Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km  
Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua  
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)  
Telf.: (00-34) 94 440 62 58  
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: jartza@euskaltzaindia.net  
Arduraduna / Responsable / Responsable: Jon Artza

### ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES / DÉLÉGATIONS

ARABA / ÁLAVA / ALAVA  
San Antonio, 41  
01005 VITORIA / GASTEIZ  
Telf.: (00-34) 945 23 36 48  
Faxa / Fax: (00-34) 945 23 39 40  
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: gasteizordez@euskaltzaindia.net  
Ordezkaria / Delegado / Délégué: Patxi Goenaga

GIPUZKOA / GUIPÚZCOA / GUIPUZCOA  
Hernani, 15  
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
Telf.: (00-34) 943 42 80 50  
Faxa / Fax: (00-34) 943 42 83 65  
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: donostiaordez@euskaltzaindia.net  
Ordezkaria / Delegado / Délégué: Juan Mari Lekuona

*NAFARROA / NAVARRA / NAVARRE*

Conde Oliveto, 2, 2

31002 IRUÑEA / PAMPLONA

Telf.: (00-34) 948 22 34 71

Faxa / Fax: (00-34) 948 21 07 13

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [nafordez@euskaltzaindia.net](mailto:nafordez@euskaltzaindia.net)

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Andres Iñigo

*IPARRALDEA / PAIS VASCO CONTINENTAL / PAYS BASQUE NORD*

Thiers, 18. 1

64100 BAIONA / BAYONNE

Telf.: (00 33)(0)-559 25 64 26

Faxa / Fax: (00 33)(0)-559 59 45 59

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [baionordez@euskaltzaindia.net](mailto:baionordez@euskaltzaindia.net)

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Pierre Charriton







